

Juan Martin de Ibero (1729-1783), Izuko parrokoa (1754-1783)

FRANTZISKO ONDARRA *

Azkeneko urte hauetan argitara ematen aritu gara Munarritzen 1921ean aurkituak izan ziren testuak¹. Gure ustez, denak XVIII mendekoak dira, Langarikarenak izan ezik, honenak XIX mendearen hasierakoak ere izan daitezkeela. Hamabi bat egilerenak dira, eta horregatik beste hainbeste sailetan banatu genituen duela zenbait urte². Bi egileren izenak ezagutzen ditugu bakarrik. Horietako bat Feliz de Langarika da³, arabar kaputxinoa; eta bestea Juan Martin de Ibero, Goñerriko Munarritzen jaio zena eta Oltzako zendean dagoen Izu herriko parroku izan zena. Honen berri ematen dugu lan honetan, bere predikuak *ASJU*-n agertzeko prestatu eta emanak daudela.

1. IZU ETA MUNARRITZ

1.1. Izu

Izu oso herri txikia izan da beti. 1590ean 8 *vecinos* edo etxe ditu eta horietan 30 bat lagun bizi dira, haurrak kontuan hartu gabe noski⁴. 1771.ean 15 familiatan 53 *personas de comunión* eta 27 *parbulos* ditu, beren parrokia eliza Asuntzioko Ama Birjinarena dela eta parrokoa Albako dukeak izendatu

* Euskaltzaindia.

1. Frantzisko Ondarra, *FLV*, 53 (1989), 97-144; 55 (1990), 73-121; 57 (1991), 131-168; 60 (1992), 297-333; 62 (1993), 137-153; 67 (1994), 521-544; 68 (1995), 173-190; *Euskera*, 38 (1993-1), 59-124; *ASJU*, XXVII-1 (1993), 299-320; XXVII-3 (1993), 903-947;...

2. *Euskera*, XXVI (1981-1), 349-365: ik. 352-355.

3. Langarikarenak dira guk *FLV*, 57 (1991), 131-168, argitaratu genituen testuak, garai hartan horien egilea nor zen ez genekiela. J. M. Satrustegik eman du Langarikaren berri: *Euskera*, XXVI (1981-2), 658; *ASJU*, XVI (1982), 6h. or. batez ere; *euskal testu zaharrak. I. EUSKARAREN LEKU-KOAK*-13, Iruñea 1987: ik. 63 eta 140.

4. IEA (Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa), Garro 126 kartoia, 9 zenbakia, 28-38at. or.

eta aurkezten duela. Aurreko hamarkadan, hots, 1761-1770 urteetan, 24 baitaio, 4 ezkontza, belazio 1, adinekoen 6 ehorzketa eta haurren 5 izan dira. Garai horretako hamarrenen berri ematen delarik, ikusten dugu Izun honako fruituok biltzen direla urte horietan eta hurrengoetan: garia, *ordio* edo garagarra, oloa, zekalea edo *centeno*, ailorbea edo *albuelba* 'alholva', garbantzu edo txitxirioa, baba, ilarra edo *arveja*, *beza*, *jiron*, *comunia*, artoa, mahatsa, artilea, bildotsak, txerrikumeak edo *cerdillos* eta lihoa. 1783an "Albolba" idazten da eta *Ezcandia* azaltzen da, desagertzen direla *comunia*, artoa, mahatsa eta txerrikumeak. 1784an *Aiscol* ageri da, ez dugula jaso beste daturik. 1787an "Albolba" errepikatzen da eta aipatzen dira *Arveja cuadrada* eta *negra* eta berriz ere *ezcandia*, desagertzen direla artoa, mahatsa, txerrikumeak, *aiscol* eta lihoa⁵.

1802an 13 etxe eta 91 biztanle ditu⁶; 1857an, 106 bizilagun⁷; eta 1986an, 23⁸. Ez da inoiz udal izan, baizik eta *concejo*, beste zenbait herrirekin, hots, Aratzuri, Artazkotz, Asiain, Ibero, Izkué, Lizasoain, Oltza, Orkoien⁹ eta Ororbiarekin Oltza izeneko zendea osatzen duela. 1589an eliza gibellean aurkitzen ditugu bildurik herriko arazoak tratatzeko. Honela irakurtzen dugu:

«pareçieron presentes los jurados vezinos y conçejo del lugar de yçu estando juntados y congregados a conçejo y baçarre en su lugar vsado y acostunbrado a toque de canpana ... ques tras de la yglesia parrochial del dicho lugar de yçu donde tienen vso y costunbre de se juntar para espedir y librar los negocios tocantes al d[ic]ho concejo»¹⁰.

Urte eta leku horretan bilduak hauek dira: "martin de satrustegui" eta "joanes de yçu" zinegotziak *jurados*, "joanes de vrdiain", "miguel de yçu", "remon de artazcoz", "martin de ollo", "catelina de içu" alarguna eta "joanes de yçu". 1604an hauek ageri dira auzi moduko batean sarturik: "Don Miguel de Izu abbad del", "martin de Izu" -hau ere apaiza-, "miguel de Iriarte", "Juan de Mendigaña", "Juanes de ollo", "Remon de Artazcoz", "miguel de Izu alias ansso", "Juanes de Vrdiain", "Juanes de Izu" eta "martin de Izu y artazcoz"¹¹. 1731n aurkitzen ditugu bildurik "Marttin de Vrdaiz" eta "Francisco de Larumbe" zinegotziak, "Miguel de Munarriz", "Miguel de Ibero", "Mar[ti]n de Ziriza" eta "Miguel Thomas Senar"¹². 1763an: "Thomas de Goñi" eta "Pedro de Ziriza" zinegotziak, "Juan Anttonio Esparza", "Mar[ti]n Antonio Iribarren", "Nicolas de Munarriz", "Juan Anttonio Vrdaniz" (sic *-ani-*) eta "Juan Miguel de Larumbe"¹³.

5. IEA, Navarro 2650, 8 znb., 1-2 eta 51-55at.

6. *Diccionario Geográfico-Histórico de España* ... Sección I. Comprehende el Reyno de Navarra, Señorío de Vizcaya, y Provincias de Álava y Guipúzcoa. Tomo I. Madrid MDCCCLII: ik. 393.

7. Comisión de Estadística general del Reino. *Nomenclátor de los pueblos de España*. Madrid 1858, 586.

8. *Gran Enciclopedia Navarra*. VI liburukia. Iruñea 1990, 265.

9. Orkoien berriki udal bihurtu da eta ez du orain Oltza zendea osatzen.

10. IEA, Villava 2203, 25, 19.

11. IEA, Sojo 116, 25, 70. Guk 1763ko aldaera erabili dugu, orijinalarekin bat datorrena, zedila eta grafiako beste gauzaren bat izan ezik: ik. Villava 2203, 25, 25.

12. IEA, Villava 2203, 25, 26-29at.

13. IEA, Villava 2203, 25, 2. or.

1.2. Munarritz

Munarritz beti izan da Izu baino herria handiagoa. 1791n 230 biztanle ditu, haurrak sartu gabe, 73 familiatan banatuak¹⁴; 1802an, 310 lagun bizi dira¹⁵; 1857an, 284¹⁶; eta 1986an berriz 54 bakarrik¹⁷. 1496 urteko agiri batean, 1608 urteko aldaera batek dioskunaren arabera, “Amunarritz” deitzen zaio, eta honelako hau irakurtzen dugu:

“E todo esto fue fecho e testificado en el dicho lugar de Amunarritz en la yglesia o vasilica que esta en el dicho lugar de Amunarritz llamada *beingo eliza* (etzana guk egina)”¹⁸.

S. Juan basiliza da noski, gaur egun oraindik zutik dirauena herriaren sarrean frontoiaren ondoan. *Beingo eliza* horrek “behin-behineko eliza” esan nahi ote duen galdetu diogu geure buruari, baina parrokia eliza eta aipatutako basiliza XIII mendearen hasierakoak omen dira, biak garai berekoak¹⁹. Urte horretan “Fernando Juango luzea” eta “Juanto vazterco”, besteak beste, aipatzen dira Munarritzen, eta etxe baten izena “lizarrondoa” da²⁰.

1726an Lizarrondorena etxearen ondasunen zerrenda edo *roldea* ematen da eta hau esaten zaigu:

“(pieza en el) paraje llamado *Vrdoz videa* ... affrontada a los caminos de Goñi y *vrdanos*”²¹.

Beraz, Urdanotz herriaren euskal izen herrikoa edo jatorra dugu hor, munarritzarrek erabiltzen zuten formarekin.

2. EUSKARA GOÑERRIN ETA IZU ALDEAN

2.1. Goñerri eta Oltza herrian

Munarritz Lizarrako merindateko herria da eta Goñerri deitu ibarrean dago kokatua, Aizpun, Azantza, Goñi eta Urdanotz/Urdaotz herriei batea, ibarreko hego aldean, Gesalatz ibarreko Genbe herriarekin mugatzen duela alde horretatik. Oltza herria bere izeneko zendean dago.

1904. Bazegoen urte horretan Goñerriko Goñi eta Urdanotzen bertako euskaraz hitz egiten zuenik, eta Munarritzen ere hitz egiten zela pentsa daiteke, bi herri horiekin mugatzen duelarik²².

1863-1869. Bonaparte printzeak 1863-1869 urteen artean argitaratu zuen *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara* mapan ikus daitekeenez, Goñerrin eta Oltzako zendea osoan euskara bizi-bizirik ageri da. 1869 urtean argitaratzen du Bonapartek Oltza eta Goñi herrietako euskaraz *Le cantique des trois enfants dans la fournaise*. Urte horretan berean ematen digu *Le verbe basque en tableaux*, Goñiko euskarari buruz

14. IEA, Navarro 2423, 19, 15at.

15. *Diccionario*, 1802, 41.

16. *Nomenclátor*, 1858, 578.

17. *Gran Enciclopedia*, 1990, VI, 440.

18. IEA, Garro 234, 35, 78at.

19. *Gran Enciclopedia*, 440h.

20. IEA, Garro 234, 35, 77 eta 78at.

21. IEA, Ollo 1516, 2, 15.

22. Atal honetan ematen ditugun argibide asko beste lan batean eman genituen datuen laburpen dira, hots, “Textos en vascuence en el pueblo de Goñi”, *FLV*, 49 (1987), 117-140: ik. 117-121.

zenbait xehetasun ezagutarazten dizkigula. Urte horren inguruan biltzen dituzte Elkano, Gares/Puente la Reina, Oltza eta Goñi herrietan 1300 bat hitz eta aditz laguntzailea, ez dela falta fonetika eta morfologiari buruzko datu interesgarri eta ugaririk²³.

1803. Azantzan 1756 urtean jaioa zen eta Erret Bibliotekako liburuzain izatera ailegatu zen Jose de Goia eta Muniain euskalduna zen, eta bere jaio-terriko elizan euskal misio bat zazpi urtetik errepikatuko zena paratzeko asmoa agertzen du 1798 urtean. Iruñeko apezpiku izendatua izan dadin eskatzen dute 1803an, eta honako arrazoi hau azaltzen dute, hots, euskalduna dela: “posee el idioma vascongado como nativo de este país”²⁴.

1802. Urte honi buruz eta Goñi herriaz ari dela hau aurkitu dugu:

“el día tres de Mayo de mil ochocientos, y dos se dezmaron los corderos, cabritos, y *cherris* etc. ...”²⁵.

XVIII mendea. Gogora ditzagun Goñiko parrokia etxe zaharrean aurkituak izan ziren eta gero argitara emandako testuak²⁶.

1793. Hau irakurtzen dugu agiri batean:

“Certifico yo el abad infras[crisp]to de la Iglesia parroq[ui]a del Lugar de Munarriz haver leído, y *dado á entender en lengua bulgar* el día trece del que rije al tiempo del Ofertorio de la popular así el retros[crip]to como el capítulo tercero de la sinodal, y de haver fixado en la puerta de la Iglesia como se manda, por la verdad firme á veinte, y tres de Octubre de mil setecientos noventa, y tres= Dⁿ Fran[cis]co Ant[oni]o de Assiain Abad de Munarriz” -eta errubrika²⁷.

1791. Honako hau aurkitu dugu:

“Certifico el Abad dela Parroq[ui]a del lugar de Munarriz, q[u]e la citacion General precedente haver leído, y haverles *dado á entender en lengua bulgar, y corriente de este Pueblo*, el día veinte, y siete de Febrero proximo pasado del año de mil setecientos noventa, y vno al tiempo del ofertorio de la misa Popular ... y para q[u]e conste firme Dⁿ Fran[cis]co Ant[oni]o de Assiain Abad de Munarriz” -eta errubrika²⁸.

1773. Iruñean 1773 urtean *Executorial* ... izeneko liburu bat agertzen da, Urdanotz herriko Apezarren(a) etxeari dagokion armariari buruzkoa. Bertan *Apezarrena* oikonimoaren etimologia ematen zaigu eta euskal hitza dela esaten zaigu: “expresión vascongada idioma usual, y corriente en dicho lugar”²⁹.

1755-1774. Juan Martín de Iberok, Munarritzen jaioak, Izuko parroku delarik euskaraz egiten du hemen, 1755-1774 urteen artean idatzi eta predikatu zituen sermoiek adierazten duten bezala. Eta erantsi behar dugu darabilen euskara funtsean Munarritzen ikasi zuena dela³⁰.

1754. 1753 urteaz ari dela, esaten zaigu “se juntaron los vez[in]os de este (Munarriz) en conzejo ô *bazarre*”³¹.

23. *Textos*, 118-119.

24. *Textos*, 119.

25. IEA, Navarro 2691, 7, 109: 1807 urteko aldaera da.

26. *Textos*, 117-140.

27. IEA, Villar 2766, 7, 14at. Aldaera hau 1796koa da.

28. IEA, Navarro 2381, 6, 13at.

29. *Textos*, 119-121.

30. Begien aurrean duzuen lan honetan ematen da horren berri.

31. IEA, Almandoz 1942, 24, 63 eta 139. Esagun bidenabar Sebastian de Mendiburu eta Salcedo jesuitak izan zirela proposatuak *árbitro*-tzat auzian, zertu ez bazen ere proposamena. 128-129 orrietan ematen da honen berri.

1726. Urte honetako agiri batean lau lekuko aurkezten ditu “Pedro Ildeffonso ochoa de olza” eskribauak, denak Munarrizkoak. Lehenbizikoa “Miguel de Vidondo” da, 63 urtekoa gutxi gorabehera, eta eskribauak hau idazten du: “doi fee Yo el d[ic]ho es[criba]no averle mostrado (ondasunen *rolde* edo zerrenda), leido, y *dado a entender en su lengoa bulgar*”. Hori bera egiten du “Juan de Ascarate”, 60 urtekoa gutxi gorabehera, hirugarren lekukoarekin, eta “Martin de Lizarrondo”, 56 urtekoa gutxi gorabehera, laugarrenarekin; baina ez “Juan Angel de Vidondo”, 44 urtekoa gutxi gorabehera, bigarrenarekin³².

1678. Urdanozko jauregiko jauna eta herriko *abad* edo parrokoa auzitan dabilta 1678an, apaizak hitz iraintsuak esan omen zituelako jauregiko anderearen aurka euskaraz. Lekukoak Bidaurreta, Gares, Aizpun eta Urdanozkoak dira, eta bakoitzak bere erara denek errepikatzen dituzte apaizak esan zituen euskal hitzak³³.

2.2. Izu aldean

1863-1869. Goian esan den bezala, Bonaparteren mapak erakusten duenez, Oltzako zendea osoan euskara bizi-bizirik zegoen, beraz Izun ere bai. Eta ez dugu hemen berriz esango han Oltza herriari buruz idatzia.

XIX mendea. Oltzako zendean dagoen Ibero herriko gurutze-bide bat, mende horren hasiera aldekoa, aurkitu eta eman zuen argitara Jesús Arraiza Fraukak, 1807 urtetik aurrera Iberoko kalbarioan egiten zena³⁴.

1755-1783. Gogora dezagun lehen Juan Martin de Iberori buruz esandakoa.

1590-1599. Juan Solano Pinillos, edo Pinillos Batxilerra, Sesmako semea eta bertako benefiziatua, Izuko *abad* edo parroku zen 1590 urtean³⁵. Zaharra zen, 82 urtekoa baitzen, eta bazituen 35 urte karguan. Sesman bizi zen egoitez, Izun egon behar lukeelarik. Auzitara eramaten dute arrazoi horregatik, baina Izuko biztanleen hizkuntza, euskara, ez dakielako eta adin handikoa delako, bere jaioterrian bizitzen utz diezaioten eskatzen du, bere parrokiari *vicario* edo ordeko bat arduratuko dela bertako gauzez. Lortzen du nahi duena, baina hamabi dukat eman behar ditu “para obras pias y la yglesia de Izu”.

Sesman bizitzeko baimena lortu aurretik, sei lekuko aurkezten ditu batxilerraren prokurakoreak parrokiari hizkuntza egoera erakusteko, zera probatu nahi duela, hots, Izun zortzi etxe eta *vecinos residentes* bakarrik daudela eta biztanleen hizkuntza euskara dela. 1. lekukoak³⁶ dio 8 etxe eta 30 bat lagun daudela; 2.ak, 9 *vecinos residentes*; 3.ak, 7 edo 8; 4.ak, 7; 5.ak, 8; 6.ak, 8 edo 9. Hizkuntzari buruz, 1.ak dioenez, Pinillos batxilerra Sesmako da eta han erdara edo *la lengua romanizada* bakarrik mintzatzen da, ez duela inoiz ere ikusi euskaraz hitz egiten, euskara edo *la (lengua) bascongada* delarik Izun

32. IEA, Ollo 1516, 2, 18at.-21. Eskribau euskalduna dugu hemen.

33. *Textos*, 121.

34. J. Arraiza Frauca, “Ibero, Vía Crucis en vascuence de comienzos del siglo XIX”. *FLV*, 51 (1988), 143-154.

35. IEA, Garro 126, 9 znb., *passim*.

36. IEA, Garro 126, 9, 28-38at. Lekukoetan, 1.a apaiza da eta Iruñeko San Zernin parrokiako korista; 2. eta 3.ak, Izukoak; 4.a, Aldatz herriko parrokiako bikarioa; 5.a, Asiaingoa; 6.a, Izuko bikarioa Pinillosen ordeaz.

egiten den bakarra. 2.aren arabera, herriko biztanle guztiek edo gehienek ez dakite erdaraz, baizik eta euskaraz eta euskara bakarrik erabiltzen dute: “ni se habla otra sino la vascongada”. 3.aren arabera, euskara bakarrik erabiltzen da eta ez erdara, hau dakienik ez dagoela. 4.ak dioskunez, denak euskaldunak edo *bascongados* dira, eta ez daki inork eta ez du ulertzen erdara edo *Romance*. 5.ak: Pinillos Sesmakoa da eta han denak erdaldunak edo *Romançados* dira eta ez dakite euskaraz, ez dio inoiz entzun euskaraz mintzatzen, euskaraz jakin oso gutxi dakielako eta ezin duelako inork ulertu haren euskara modua. Izun, berriz, euskaraz hitz egiten dute eta mintzatzen dira, eta denek edo gehienek ez dakite erdaraz, baizik eta euskaraz: “*se habla y platica la lengua bascongada y todos o los mas vezinos del no sauen Romance sino bascuence*”. 6.ak: ez du ikusi Pinillos euskaraz mintzatzen, ez baitaki, eta Izun euskaraz bakarrik mintzatzen dira eta gehienek ez dakite erdaraz. Erabakitzen da, gorago esan dugun bezala, batxilerrak 12 dukat eman behar dituela, hainbeste urtez herritik kanpo bizi izan delako, urte horietan bere parrokiaren hizkera ikas zezakeelarik.

1598ean berriz ere auzitara daramate³⁷, hainbeste urtetan Izuko parroku *abad* izanik, ez delako hor bizi izan, Sesman baizik. *Fiscal* edo akusatzaileak, 1599 urteko agiri batean, zera nahi du probatu: 1. 40 urte eta gehiagotan Pinillos ez zela bere parrokian bizi izan, bertan denak euskaldunak direla eta bera ez, bere bizialdi guztian Sesman bizi izan zelako, baina parrokiako fruituak eraman zituela, eta 2. Juan de Pinillos dela bere osabaren oinordekoa.

Horretarako aurkezten ditu lekukotzat Sesmako bikarioa eta bertako bi benefiziatu³⁸. Horiek diotenez, 1. Pinillos ez zen bizi izan Izun eta ez zekien euskaraz, eta 2. “juan pinillos” da oinordekoa. Honek 100 dukat eman behar ditu Izuko elizarendako, baina ez du onartzen erabakia, batxilerra bere osaba hil delako eta bera herrigizon edo *lego* delako³⁹. 1598an hil zen Pinillos batxilerra, erdalduna euskaldunen artzain, eta Erreinuko kondestableak, Leringo konde eta Albako duke zenak, beste erdaldun (?) bat, Francisco Gomez, Leringo semea, aurkezten du eta onartzen dute Izuko parrokutzat⁴⁰.

1589. Goian, lan honen 1. atalean ipini dugun pasarte batean aurkitzen dugu: “los jurados vezinos y conçejo del lugar de yçu estando juntados y congregados a conçejo y *baçarre*”⁴¹.

3. JUAN MARTIN DE IBERO

3.1. Jaiotza, apaizgoa eta parrokia

Gorago esan dugun bezala, Goñerriko Munarritzen jaioa da. Elizako liburuetan ez da ageri jaioteguna, bataio eguna baizik. Honela:

“En cinco de febrero de mil setezientos veinte y nueve baptize a Juan Martin hijo de Fermin de Ibero y Juanamaria de Albeniz. Fermin fue hijo de Martin de Ibero y Felisa⁴² Sanz y Juanamaria fue hija de Miguel de Albeniz y Mag-

37. IEA, Sojo 104, 8, 23.

38. IEA, Sojo 104, 8, 28hh.

39. IEA, Sojo 104, 8, 42.

40. IEA, Garro 159, 1. znb.

41. IEA, Villava 2203, 25, 19. Ik. 10 oharra.

dalena de Amezqueta vecinos de Iruñela; padrinos fueron Don Juan de Albeniz Abad de Iruñela y Juana Maria de Sinosiain; ella no toco a la criatura al echar el agua; adverti el parentesco espiritual y la obligacion de la doctrina Christiana y firme. Don Juan de Urreta Abad de Munarriz⁴³.

1729 urteko otsailaren 5.ean jaioa zegoen, bada. Beraz, egun horietako batean jaioa da -bere iloba Fermina de Oderiz Ibero jaio eta 4. egunean izan zen bataiatua-. Juan Martinen aita, “Fermin *Felix* (sic) hijo de Martin de Ibero y *Felicia* (sic) Sanz de Munarriz Aramaio” 1694 urteko urriaren lehenengo egunean Munarritzen izan zen bataiatua⁴⁴, eta 1712ko ekainaren 29.ean ezkondu zen:

“se casaron ... Fermin Feliz (sic) de ybero, hijo legitimo de Martin de ybero, y *Felicia* (sic) sanz; y Agustina de senosiain hija legitima de *Salvador* (sic) de senosiain y Maria de mutiloa⁴⁵.”

Ikusten dugunez, aita, Fermin Felix/Feliz de Ibero Sanz de Munarriz, Munarrizkoa da; ama, berriz, Juana Maria de Albeniz Amezqueta, Deierri ibarrean dagoen Iruñela herrikoa. Juan de Urreta de *abad* edo parrokoa. Aitaren zenbait aipamen aurkitu ahal izan dugu garai hartako pareretan: 1726 urtean zordun ageri dira “Ffermin Ffeliz de Ibero” eta bere emaztea⁴⁶, 1753an herriko *conzejo o bazarrean* ikusten dugu “Fermin Felix de Ibero”⁴⁷ eta 1754an lekuko bezala auzi batean⁴⁸.

Aramaio, behin Aramaiona, etxekoa da gure parrokoa, aitaren ama Felicia Sanz de Munarriz *Aramaio* baitzen, eta Sebastianana, Juan Martinen arreba eta honen senarra “dueños dela casa de Aramaiona” (sic) ziren, agiriak bazterrean “Fermina de *Orderiz* (sic) *Aramaio*” dioela⁴⁹.

Ez dakigu non egin zituen apaiz ikasketak, baina apaizgora ailegatzeko jarraitu behar diren pausu edo mailak noiz hartu zituen badakigu, bai eta denetak Iruñean Gaspar de Miranda eta Argaiz Iruñeko apezpikuaren eskutik hartu zituela. Tontsuradun 1744 urteko martxoaren 20/21.ean egin zen⁵⁰, ordena txikiak 1750 urteko azaroaren 19.ean hartu zituen, subdiakono 1754 urteko abenduaren 20/21.ean bilakatu zen, diakono 1755eko otsailaren 21/22.ean bihurtu zen, eta 1755eko martxoaren 14/15.ean apaiztu zen⁵¹.

Izuko *abad* edo parroku izateko “Fernando de Beaumont, Duque de Alba, Silva, Alvarez de Toledo” etab. jaunak izendatu eta aurkeztu zuen 1754

42. IEA, Villava 2152, 5, 21: Juan Martinen bataio agiria aldatzen da eta “*Felicia*” idazten da. Munarrizko elizako bataio agirietan etab. “*Felicia*” ikusi dugu beti Juan Martinen amandrea aipatzen denean.

43. MPA (Munarrizko Parrokia Artxiboa) (*Bataiatuen*) 1. liburua, 2. zatia, 2at. Goñerriko 5 herrietako parrokuak 1994.11.30.ean bidali zigun bezala aldatzen eta aipatzen dugu. Oharra: Bataiatuak, konfirmatuak eta ezkonduak txandaka daude ezarriak, orrialde zenbatzea behin eta berriz hasten dela eta horregatik zehazki aipatzen zaila dela.

44. MPA, *Bataiatuen*, 66at.

45. MPA, *Bataiatuen*, 16: orrialde zenbatze berria.

46. IEA, Ollo 1516, 2, 16at.

47. IEA, Almandoz 1942, 24, 63 eta 209h.

48. IEA, Almandoz 1942, 24, 105at eta 155at. Munarriz, 1754-08.11-ko agiri honetan esaten zaigu “Fermin Felix de Ibero”k 60 urte beterik dituela *cumplidos*, urte horretako urriaren lehen egunean izan zelarik bataiatua. Beraz, hirurogei urte gutxi gorabehera zituen.

49. MPA, *Bataiatuen*, 30at.-31: zenbatze berria 1728tik aurrera. Ik. 55 oharra.

50. IEA, *Libro 1.º de Matricula delos Ordenados ... por ... D. Gaspar de Miranda y Argaiz*, 64.

51. IEA, *Libro 2.º de Asientos y Matriculas delos Ordenados por ... dñ. Gaspar de Miranda y Argaiz*, 54-54at.: ordena txikiak; 173-175: subdiakonotza; 178-180: diakonotza; 180at.-181: apaizgoa.

urteko apirilaren 5.ean, eta Elizak onartu zuen 1754ko azaroaren 14.ean, haren jakinduria eta beste aztertu ondoren, Izuko parrokutako, artean ordena txikidun zela⁵².

3.2. Ahaideak

Anaiarik izan zuenik ez dugu aurkitu, baina bai Ana Sebastiana zeritzan arreba bat, bera baino zaharragoa zena, hau irakurtzen baitugu 1724ko uztailaren 3.ean:

“baptize a Ana Sebastiana hija legitima de Fermin Feliz de Ibero y Maria de Albeniz ... Dⁿ Juan de Vrreta Abad de Munarriz”⁵³.

Bataio agirian “Ana Sebastiana” badio ere, beste garbitasun guztietan Sebastiana, Ana gabe, esaten zaio. Artazkotz herrikoa zen Remiro edo Ramiro de Oderizekin ezkondu zen 1739an, 14 urte eta 7 hilabetekoa zela. 1739ko otsailaren 4.ean hau esaten zaigu:

“se cassaron Juan Rømiro (sic) de Oderiz, hijo legitimo de ... vezinos y habitantes en el lugar de Artazcoz; y sebastiana de Ibero ...”⁵⁴.

Bi ume izan zituzten: Fermina eta Juan Bautista. Fermina 1743ko abuztuaren 3.ean jaio zen:

“nacio Fermina de Orderiz (sic)⁵⁵, hija legitima [de] Remiro de Orderiz (sic) y Sebastiana de Ibero vecinos de este lugar (Munarritz) y dueños dela casa de Aramaiona”⁵⁶.

Eta 1743ko abuztuaren 7.ean izan zen bataiatua. Juan Bautista hiru urte geroago, 1746ko uztailaren 31.ean jaio zen:

“nacio J[ua]n Bautista de Oderiz⁵⁷, hijo leg[iti]mo de Rømiro (sic) de oderiz y Sebastiana de ybero”⁵⁸.

Bataio agiri honetan esaten denez, “Juana Maria de Alueniz” amona Arizalakoa da -goian esan da Iruñelakoa zela-.

Esango genuke Juan Martinen gurasoak, Juan Martin bera, bere ilobak eta hauen gurasoak etxe batean bizi zirela denak: Aramaion. Juan Remiro, arrebaren senarra, Iruñeko Ospitalean hil zen 1751 urtean, urte horretako zenduen berri ematean jakinarazten zaigunez:

“Amunarriz (sic, eta bazterrean) En 17 de Sep[tiemb]re se Entterro en la Iglesia Ramon (sic, ez Remiro/Ramiro) de Oderiz pago los d[e]r[ech]os dⁿ Miguel de olaverri”⁵⁹.

52. IEA, Villava 2152, 3 eta 12.

53. MPA, *Bataiatuen*, 93at.

54. MPA, *Bataiatuen*, 7: orrialde zenbatzea berriro hasten da 1727 urtean ezkonduen atalean.

55. MPA, *Bataiatuen*, 30at.-31. Bazterrean: “Fermina de Orderiz Aramaio”. Ik. 56 eta 57 oharrak: “oderiz” eta “Aramaiona”.

56. MPA, *Bataiatuen*, 30at.-31. Hemen “Aramaiona”.

57. MPA, *Bataiatuen*, 36at.-37. Lehenbizi “oderiz”, gero zuzendu eta espero den “oderiz” bilakatu.

58. MPA, *Bataiatuen*, 36at.-37.

59. Nafarroako Artxibo Orokorra. Iruñeko Eritegi Orokorra, 423 liburua (1738-1761), “Entierros/2” arkatx urdinez estalkian. Ik. 1751 urtea, 168 or. Munarrizko parrokiako zenduen liburua desagerturik dago.

Eliza hori Iruñeko Ospitalarena zen, oraindik zutik dirauena Nafarroako Museoaren aldamenean, eritetxearen lekuan museoa dagoela orain. Miguel de Olaberri eritetxeko arduradunen bat zen, berak ordainduak baitira orrialde horietako ehorzketa guztiak. Munarrizko parrokiako zenduen liburua desagerturik dagoelako, ezin izan dugu parrokia liburuetan ez Juan Remiro ez beste inoren heriotze berririk aurkitu.

Sebastiana hilik zegoen ordurako, esaten baita, 9 eta 7 urteko zirela⁶⁰, umezurtz gelditu zirenean umeak, osaba apaizak bereganatu zituela zer guztiak eta gainera hartu zituela errentak *delos raices* 18 urtez, 1771 arte -beraz, 1753an hasi zen errentak kobratzen-, eta data horretan eman zizkion atzera Juan Bautistari errentak, baina berak gorde zituen “Juan Ramiro” hil zenean bereganatu zituen beste zerak⁶¹. Hortaz, aita hil zenean gelditu ziren umezurtz, atzera eman zituenak eta eman gabeak denak batean eskuratu baitzitu. Hasieran aiton-amonak arduratzen ziren umezurtzez, baina Izuko “Casa Abazial”era eraman zituen denak, bai gurasoak eta bai ilobak, 1754 urtean parroku egin eta Izura han egotez bizitzera joan eta berehalaxe *a brebe tiempo*⁶². Ama 5 urtez eta aita 11 urtez mantendu zituen Apezetxean, hil ziren arte. Semearekin bizi zen bitartean aita baratze bat lantzen zuen aldamenean dagoen Artazkotz herrian, entretenigarri⁶³. Hil zirenean, Munarriztera eraman zituen gurasoen gorpuak “Entierro Nobeno (sic) y Cabo de año” egiteko⁶⁴.

Gurasoak eta ilobak Izura eraman zituenean, Munarritzen zuten etxearen eta lurren etab. ardura bere gain hartu zuen Iberok, zenbait gauza Izura eraman zituela eta beste zenbait saldu. Ez da oroitzen zehazki Azkarate, *cabeza-lero* edo testamentu betetzaila, baina entzun duenaz zortzi ardi, lau ahuntz, mando bat, arroparen bat edo *ropa blanca* eta beste zenbait gauza izan ziren izuratuak⁶⁵. 1753 urtetik 1771 urtea arte alogeratu zuen gurasoen etxaldea, gari eta diru errentak hartzen eta kobratzen zituela⁶⁶.

Juan Bautista iloba 1753tik 1761a arte egon zen osaberekin, eta aldi horretan zenbait lanetan lagundu zion etxean, osabak mantentzen zuela eta maisu lana ere egin zuela: “(le) daba la Educación de Escuela”⁶⁷. Fermina ilobak neskame bezala zerbitzatu zion, ez lehenbiziko urteetan, baina bai hurrengoetan, eta denbora guzti horretan -1753-1773- osabak mantendu zuen⁶⁸. Ematen du ez ziela soldatarik ordaintzen zerbitzuengatik, argi eta gar-

60. IEA, Navarro 2384, 10. Ilobek sortutako auzia da eta izenburu hau darama estalkian: “Testamentaria Izu / de / dⁿ Juan Baupista de Oderiz Ve/cino de la Ciudad de Estella Mu/narriz su prôr / Contra / dⁿ Pedro Fermin de Ascarate Abad / de Aizpun y dⁿ Pedro Juan de Sagues / Ben^{do} de Ollo executores testament^{rios} / de dⁿ Juan Martin de Ibero Abad q^e / fue de Izu: Garcia su prôr”. Umezurtzak 9 eta 7 urteko omen ziren, horrela 15. or.an. Baina badakigu 8 eta 5 urteko zirela aita hil zitzaizenean, hots, 1751.09.17ean, Fermina 1743.08.03an eta Juan Bautista 1746.07.31n jaioak baitira. Ez da ahaztu behar testamentuaren inguruan sortutako auzia aita hil eta 32 urte geroago hasi zela, 1783 urtean.

61. IEA, Navarro 2384, 10, 15-15at. Gutxi gorabehera ulertu behar da 18 urteko aldi hori, uste dugunez. Ik. 60 oharren bukaera.

62. IEA, id., 65at.

63. IEA, id., 62-67. Artazkozkoa zen Remiro de Oderiz bere suia.

64. IEA, id., 66, 1 §.

65. IEA, id., 66, 2.

66. IEA, id., 66, 3.

67. IEA, id., 66,4-66at., 1.

68. IEA, id., 66at., 2.

bi ez dioen arren Azkaratek. 1761 urteko apirilaren 16.ean osabak Juan Bautista Iruñean ipini zuen zerbitzari *puso a serbir* Pablo Arraiza merkatariaren etxean *comerzio y casa* 5 urtez⁶⁹. Arraizarekin jarraitzen du 1767an⁷⁰.

Amaren jaiotetxeko jabe ageri da 1762 urtetik aurrera Juan Bautista⁷¹. Ezkondu 1769ko maiatzean ezkondu zen “Jabiera Huarte”rekin, gastu guztiak osabak ordaindu zituela⁷². Lizarran bizi da 1770 urtetik aurrera, denda baten jabe merkatari bilakaturik⁷³.

Fermina arreba 1773an ezkondu zen Mendigorriakoa zen Frantzisko Lator-ekin⁷⁴, eta herri horretan ikusten dugu 1783 urteko azaroaren 2.ean⁷⁵. Azkaratek entzun duenez, ezkontsaria osabak zertu zuen, ezkontza hitzarmenak *los contratos matrimoniales* Oderizek ordaindu zuela badio ere⁷⁶ -soldatarik ez emana nahi du zuritu esandakoarekin-.

Remiro eta Sebastiana ezkondu zirenean, erabaki zen berek zutela esku-bidea umeetatik zein izango zen oinordekoa hautatzeko, eta eginbehar hori bete gabe hiltzen baziren, ahaide hurbilenek zuten eskubide hori. Oinordekoa izendatu gabe hil zirelarik gurasoak, Juan Martin osabarengana eta Juana Maria de Oderizengana joan zen eskubidea, eta hauek Juan Bautista hautatu zuten bere gurasoen ondasun guztien oinordeko. Baldintza batekin: bere arreba Ferminari 250 dukat eman behar zizkion, eta bete omen zuen egiteko hori⁷⁷.

3.3. Osabaren testamentuaren aurka

Osabak 1766an egin zuen testamentua⁷⁸, baina 1783a arte ez zuten izan ilobek haren berririk. Osaba hil ondoren, jakin zuten hark bere arima egin zuela bere zer guztien oinordeko eta Nafarroako erreinuko foru eta legeen arabera egin zituela ilobak oinordeko “en la legitima”, ematen ziela *señalándoles* errau bana erreinuko zilegietan eta bosna *sueños febles o carlines*. Pedro Fermin de Azkarate, Aizpungo parrokoa, izendatzen du *cabezalero* edo testamentu betetzailerik, eta, hiltzen bada bera baino lehenago, Pedro Juan de Sagues apaiza, Senosiaingo semea.

Goian, 62 oharretik 76 oharrerraino, salbu 75 oharra, aitatzen diren orrialdeetan ageri diren gauzak eta berriak Azkaratek jakinaraziak dira, eta Juan Bautistak auzitara eramanean esandakoekin ez datoz bat. Entzun ditzagun honek esandakoak, osabaren azken nahia jakin zuenean eta ikasi zuenean ez ziola ezer utzi testamentuan.

Zor omen zitzaizkion zeren zerrenda luze eta zehazki antolatua aurkeztu zuen. Besteak beste, Oderizen gurasoenak omen ziren zer hauek hartu zituen Munarritzen osabak: gari eta ardantzen 18 urtetako errenta, mando zuri bat,

69. IEA, id., 64, 2.

70. IEA, id., 64at., 5.

71. IEA, id., 64,3.

72. IEA, id., 65,1.

73. IEA, id., 65, 3.

74. IEA, id., 66at., 2.

75. IEA, id., 3 (sic).

76. IEA, id., 66at., 2.

77. IEA, id., 15-16at.

78. IEA, id., 55-58: orrialde hauetan dago aldaturik. Orijinala ik. hemen: PA (Protokoloen Art-xiboa), Miguel Antonio Belza, 1242 karpeta, 54 znb.

bi behiren balioa, idi pare bat, lau ahuntz, lau zerri, 28 ardi, behor baten balioa, 12 oilo, bi laia pare, uztarri bat, hiru kutxa -eta beste bat Artazkoztik-, etab⁷⁹. Gainera, 6 urtez sakristau izan zen Izun eta bere soldata 7 gari erraukoa zen urteko eta alorren errenta sakristau bezala. Fermina arrebak 18 urtez zerbitzatu zion osabari, 6 dukat urteko, baina ez omen zizkien ordaindu ez soldatak ez besterik⁸⁰. Guztira, 10.126 erreal zor omen zituen osabak.

Beste zerrenda batean adierazten du zer eraman zuen osabak Lizarrako dendatik 1770-1773 urteetan, eta ordaindu gabe utzi. Guztira 129 erreal eta 16 marai⁸¹. Azkaratek erantzuten du Juan Bautista ez dela hartzekodun, zordun baizik, eta 2.439 erreal eta 4 marai zor dizkiola osabari⁸².

Beste agiri batean esaten denez, Juan Bautistak aurkeztutako zerrenda eta datuak berak asmatuak dira, bere gurasoak oso behartsuak zirelarik, eta azken gaixoardian Iruñeko Ospitalera *al santto Hospital deesta ciudad* eraman behar izan zutelarik aita. Han hil eta ehortzi zutela, dio, eta ez zela horrelakorik gertatuko, semeak esana egia balitz. Hemen dioenez, “2.361” erreal eta 16 maria zor ditu⁸³.

Akordio batera ailegatzen dira, auzitan gehiago ez gastatzeagatik eta haserreak sor ez daitezen. Eta Juan Bautistak ahoz *verbalmente* esan diolako Azkarateri haren Munarrizko etxea 100 dukatetan dagoela grabatua eta hori zertu zela “para el Abio de dho dⁿ Juan Marttin” eta Azkaratek baduelako arazo horretaz zerbait berri, ilobari 100 dukat eta 20 *peso* emango zaizkio eta Ferminari barkatuko zaio zor duena⁸⁴, hots, 491 erreal eta 25 marai⁸⁵. Apezpiku etxeko gobernari nagusiak onartzen du aipatu dugun hitzarmena, baina zenbait aldagetarekin: Juan Bautistari 100 dukat bakarrik emango zaizkio, ez ordeba beste hogeit hamar *peso* horiek, eta arrebari zorraren erdia bakarrik barkatuko zaio; baina behartsuak badira, Azkarateren esku uzten da zer egin: zati bat edo dena barkatu⁸⁶.

3.4. Parrokia etxea

Izuko parrokia hartu aurretik beste inon arima-zain izan zenik ez dakigu, baina, ordena txikidun zelarik kargua eman ziotenean, ezetz esan behar dugu. Bere gurasoek 100 dukatetan grabatu zuten jaiotetxea “para suplir los Gastos de pasar p[o]r Abad dho D. Juan M[a]r[t]in y poner la casa con dezenia en dho lugar de Izu”⁸⁷.

Izuratu zenean, ez bide zegoen oraindik bukatu, eraikitzen hasiak ziren parrokia etxea. 1753 urteko maiatzaren 21.ean lortzen da Iruñean apaiz etxea egiteko baimena “por quantta delas renttas y efectos de dha Ig[lesi]a”, eta hargina *rematte de candela* prozeduraz hautatuko da. Artean Izuko abad “Fausto Perez de Azanza” zen eta 1753 urteko urriaren 13.ean jakinarazten die izutarrei etxea egiteko baimena edo *licencia*. 1753ko urriaren 23.ean “Es-

79. IEA, id., 7-7at.

80. IEA, id., 8at.

81. IEA, id., 9-10.

82. IEA, id., 19-23.

83. IEA, id., 45.

84. IEA, id., 51at.-52.

85. IEA, id., 64at., 4.

86. IEA, id., 69-70at.

87. IEA, id., 66at., 3.

teban de Muzquiz”, “beedor de obras de este obispado” izan da hautatua aurkeztu duten etxearen *traza* ikus dezan. Ez du ontzat ematen eta beste bat moldatzen du, bertan zehazki erabakitzen duela nola egin gauzak: non egin etxea, materialak, neurriak, zurgin eta harginaren lanak etab⁸⁸.

1754 urteko urtarrilaren 10.ean biltzen dira Azantza etab. Arteta herrikoa den “Pedro J[o]s[e]ph de Inchausti” harginarekin *maestro cantero*. Honek egin behar du etxea, hasten dela lanean 1754ko martxoan eta bukatzen duela 1755eko irailaren 29.erako, 8.260 erreale kobratuko dituelarik⁸⁹. Nondik lortuko dute dirua? 1754ko maiatzaren 20.ean biltzen dira eskribauarekin “Dⁿ Juan Fran[cis]co de olmos Abad (Asiaingoa, Azantza hil delarik), è, Interin del Lugar de Izu” etab. Eta azaltzen dute iritsi dutela 1754-1757 urteetako Izuko elizaren hasikinen fruituak arrendatzeko baimena. Gehien eskaintzen duena “Pedro Joseph de Marturet”, Doneztebe *Santestebanen* bizi dena *residente* da, eta berari ematen dizkiote fruituak⁹⁰.

Etxea amaitu ondoren, “Pedro Joseph de Inchausti”ren (sic hemendik aurrera: “Insa-”) seme eta oinordekoa zen “Martin de Insausti”rekin -hau ere Artetakoa eta hargina- 1770ean auzia izan zuen⁹¹. Iberok ez zion ordaindu nahi puska bat, etxea ez omen zuelako eraiki Martinen aitak akordioaren arabera. Hala ere, 1769ko agiri batek dioenez, 1754an eraikia zegoen “la obra de la casa Abazial” eta 1756an ikusi eta ongi egintzat eman zuen “el veedor de obras de el Obispado”⁹². 1770ean Iberoren kontrako epaia ematen da eta ordaindu behar dizkio Martini honek eskatzen zituen 893 erreale eta 25 marraiak eta gainera auziko gastuak⁹³.

Apezetxea du izena gaur egun ere apaiz etxe horrek. Hasikinen fruituen errenta ez bide zen izan nahikoa, eta 1791ko agiri batean irakurtzen dugunez, 1773an 100 dukat hartu zituen, elizako hasikinen errentak grabaturik berriz ere, “p[o]r la satisfac[ci]on dela Nueva Casa Abazial”⁹⁴. Diru hori Iruñeko San Lorentzo elizak aurrerratu zuen, eta Olabarrieta Izuko parroku berririk 1784an atzera eman zion eliza horri⁹⁵. Helburu horretarako Azkaratek, testamentu betetzailer bezala zuen ahalmenaz baliaturik, 572 erreale eskuratu zizkion Olabarrietari zenduak utzitako ondasunetatik, “considerando la utilidad que a dho Abad le trajo la construccion de dha casa”⁹⁶.

3.5. Ibero parrokiaren alde, etab.

Izan zuen auzirik Izuko elizaren alde. Juan de las Heras eta “sus Autores” izan ziren XVI mendekoak diren aldare nagusiko eta beste bi aldareetako lanak egin zituztenak. Lan horietan margolari gisa ageri dira “Miguel de Ibiricu”, Iruñekoa, eta “Juan de Astiz”, Asiaingoa, besteak beste⁹⁷. Las Hera-

88. IEA, Villava 2203, 25, 127 at.hh. Apaiz etxea egin baino lehen aurkitzen dugu 1734an *Apezarena* izeneko etxe bat Izun: Ollo 1543, 19.

89. IEA, id., 136.

90. IEA, id., 139-142at.

91. IEA, Villava 2231, 7, 5.

92. IEA, id., 29.

93. IEA, id., 102-103.

94. IEA, Navarro 2384, 10, 79, 2.

95. IEA, id., 77.

96. IEA, id., 79, 2.

97. IEA, Moreno 2511, 7, 33-34. Egile gehiago ere azaltzen dira eta zehatz-mehatz adierazten da egin den lan bakoitzaren balioa: 8-10 eta 33-34.

si noiz eta zenbat ordaindu zitzaion, lehen ordainketa 1555ean izan zelarik, esaten du Iberok⁹⁸. Kontu liburuen arabera, 86 dukat eta 6 erreal gehiegi eman zitzaizkion. Haren oinordekoak diren “Juan Llorach” eta “Joachina Lucindo Lison”ek, 1779ko epai batek erabakirik, kopuru hori ordaindu behar dute⁹⁹. Oraingoan garaile izan da parrokoa.

1758an Tomas Senar eta Mendigañaren aurka ari da artilearen hamarrenak direla-eta. Izukoa izanik, ardiak Aratzurira eramaten ditu moztera hamarrenak ez ordaintzeagatik, Aratzurin ez omen dira pagatzen eta¹⁰⁰. 1762an “Manuel de Mendigañaren” kontra ageri da. Manuel aldamenean dagoen Aratzkotz herriko parrokoa da, eta hasikin eta hamarrenei buruz dihardute¹⁰¹. 1763an Joakin Senar eta Mendigañak auzitara eramaten du. Joakin Izuko benefiziaria izan da, eta horregatik gari eta ardoa zor omen zaizkio¹⁰². Urte horretan berean bigarren auzi bat du. Izukoek kantari tituluko benefiziaria izendatu dute, aurrekoa hil delarik. Han eta hemen ikusten denez, hasikinekin ordaintzen da kargu hori. Herriaren kontra, irabazten du auzia: ez da onartzen egindako izendapena eta ez besteren izendapenik ere¹⁰³. 1764an Juan Antonio de Espartzaren txanda da. Honek ez du eman nahi zor duen gari puska bat *Arca de Misericordiarako*. Kutxa hau 40 erraukoa da, eta ereiteko garia banatzeko sortua izan zen, gari hori maisterrek behar dutela batez ere:

“para que anualmente se repartiese entre los vecinos conzejantes de dho Lugar (Izu), y hauittantes de él para aiuda de sembrar por el Abad y Rexidor mas antiguo”¹⁰⁴.

“Franc[is]co Ramon Senar y Mendigaña”k 1766ko azaroaren 26.ean auzitara jo nahi duelarik, “Nicolas de Echeverria” prokuradoreari ematen dio bere ahalmena. Lekukoen artean “Juan Mar[ti]n de Ibero Abad de este lugar” ageri da¹⁰⁵. Data ber-berean, aurreko agirikoak berak, Asiainen daukan etxe baten usufruitua “Polonia Elorza” bere ugazamari uzten diolarik, gure Juan Martin hautatzen du lekukotzat¹⁰⁶. Urte bereko azaroaren 29.ean auzitara jo nahi dute berak eta “Joachin Senar”, Izuko *vezino* den apaizak. Asiaingo *abad* den “Pedro Ilzarbe”k berrikuntza bat *cierta novedad* sartu du elizkizunetara dietzeko moduan *en punto al llamamiento a las funciones de su Iglessia*, eta Izuko bi apaizok kontra agertzen dira¹⁰⁷. 1769ko azaroaren 14.ean “Polonia Elorza” eta bere semeorde den “Francisco Ramon Senar”ek, goian aipatu ditugunak, Iberori ematen diote ezkontza hitzarmena *contratos matrimoniales* antolatzeke ahalmena. Senar-en andregai Iruñekoa da, eta ez senargaiak ez ugazamak ezin dute Iruñera joan, dituzten zereginak *lexitimas ocupaciones* eragozten dietelako¹⁰⁸. Hurrengo egunean, aurreko eguneko ahalmena indar-

98. IEA, Id., 34at.

99. IEA, id., 49.

100. IEA, Almandoz 1975, 5.

101. IEA, Ollo 1684, 10.

102. IEA, Almandoz 1986, 10.

103. IEA, Villava 2203, 25, 166.

104. IEA, Ollo 1693, 2, 1.

105. PA, Miguel Antonio Belza 1242 karpeta, 81 znb.

106. PA, id., 82.

107. PA, id., 83.

108. PA, id., 49.

gabetu eta podore berria ematen diote, eta erasten dute Ibero oso fidagarria dela eta arazoa oso ongi ezagutzen duela *persona de su maior satisfacion, y confianza, y que se halla inteligenciado mui pormenor del caso*¹⁰⁹.

3.6. Testamentua betetzen

1766ko uztailaren 12.ean egiten du azken nahia. Goian esandako zenbait gauza errepikatzen ditugula, testamentuaren betetzailerdo *cabezalero* “Pedro Fermin Azcarate” eta “Pedro Juan de Sagues” egiten ditu. Azkaratek erabakiko du zein elizatan ehortzi gorpua, Iruñeko Ospitalari bi *peso* emango dizkio eta “Jerusalem”go etxeari errau bat gari. “Baptista” eta Fermina Oderiz, Munarritzen jaiotako ilobei, “Ramiro Oderiz” eta “Sevastianana Ibero”, bere arreba eta goinatuaren umeei, errau bana ematen die zilegietan *en los montes comunes de este R[e]ino*, eta bosna *sueldos febles o carlines*¹¹⁰. Izan litzakeen zorrak kitaturik, beste ondasun guztien oinordeko bere arima egiten du. Baina ilobek jaso zuten auziaren ondorioz alde batetik, eta bestetik hiletetako gastu eta ordaindu behar izan ziren zorreatatik, Juan Martinen arimarendako 182 erreal eta 7 marai soilik gelditzen dira, eta gainera kopuru horretatik azken agiriak sortu duen gastua kendu behar da, azken erabaki hau 1791ko abenduan ematen dela¹¹¹.

Ibero hil eta berehala hasten da Azkarate haren ondasunen inbentarioa zertzen, gero denak enkantean saltzeko¹¹². Dirua nola eralgi den eta nori eman zaion esaten zaigu 1784ko urtarrilean, horrela bere inguruan izan ziren zenbait pertsona ezagutzera ailegatzen garela. Honako hauekin izan zituen harremanak eta gelditu ziren hartzekodun, bera hil zenean: “Juachin Martinez *Maestro Zirujano*”, Iberoren zerbitzari edo *ama* izan zen “Jacinta Irujo”¹¹³, Ibero hil zenean bere *ama* eta neskame ziren “Juachina Garzia” eta “Cathalina Goldaraz”, “Felix Larumbe” jostuna, “Pedro Joseph Ascarraga” ehulea, “Carlos de Azcarate” ahuntzaina -*Ganadero Conzejil* eta *Cabrero* esaten zaio-, Izun bizi zena edo *residente*, “Juan Ramon Zaro” albaitaria edo *Maestro Albeitar* -eta bazterrean, “Albaitar”¹¹⁴-, eta Asiainen bizi zen “Pasqual de Elizalde” zapatagina, hil baino zenbait egun lehenago zapata pare bat egin ziona Iberori¹¹⁵.

Hileta eta ehorzketa gastuak zenduaren diruarekin ordaindu ziren. Horietara etorri ziren 24 eta gehiago apaizen eta ahaide askoren bazkarietan 296 erreal eta 18 marai eralgi ziren. Jerusalemgo etxeari eta Iruñeko Ospitalari 24 erreal eman zitzaizkien. Goñerrin egin behar den *Vigilia* elizkizunaren gastuak ere -1784ko urtarrilaren 17.ean esaten da hau- kontuan izan behar dira. Gainera, 84 erreal eta 18 marai gastatuko dira argizari eta erresponstutan “durante el tiempo que resta al año que se debe llebar a la Parrochial y sepultura del difunto”. Erants dezagun parroku zenduaren gorpua, espero zen bezala, bere parrokia elizan izan zela hobiratu¹¹⁶.

109. PA, id., 50.

110. PA, id., 54.

111. IEA, Navarro 2384, 10, 81-82at.

112. IEA, id., 78.

113. IEA, Villava 2331, 7, 15: “Jacinta de Irujo” dago.

114. IEA, Navarro 2384, 10, 19-20.

115. IEA, id., 79at., 5.

116. IEA, id., 20at.

Zenbait gauza, “Varios Libros” barne, ez dira saldu, eroslerik ez delako izan, baina saldu direnak 4.398 erreal eta 14 marai ekarri dituzte *han Produzido*, eta *Almonedan* izan dira salduak¹¹⁷. Saldu gabe geratu zirenak ere izan zuten eroslerik gero, eta 407 erreal eta 13 marai eman zuten¹¹⁸. Ez dakigu zein eta nolakoak izan ziren lehen enkantean erosiak izan ziren *efectos* edo gauzak, bai ordea bigarrenean izan zirenak. Oso interesgarri deritzagu hauen berri emateari, ikusten baitugu argi eta garbi nolako bizimodua, nekazari kutsua duen bizimodua, eraman zuen herri txiki bateko arima-zain izan zen Iberok.

3.7. Bigarren enkantean saldutakoen zerrenda

“... estado de los efectos que han quedado por vender, y en poder de dho d^ñ Pedro Fermin (Azkarate) ...:

Primeramente dos cochones (sic), dos colchillas, cinco sabanas:

Iten (sic) dos manteles mui usados grandes, vn pequenito (sic) y doze ser-billetas sumamente vsadas=

Ocho bultos de almuada con lana, tres rodapiés y diez paños de Manos, mui vsados=

Iten dos sacos viejos:

Iten dos votas que estan en dho oderiz:

Iten vn par de medias negras:

Iten dos paños de cocina viejos:

Los moricos pala tenazas y lar del fuego:

Tres sartenes:

Vna caldera de cobre pequeña:

Las tenazas de rancar clabos:

Las tinajas:

Varios Libros:

Vna Arca:

Todo el cubaje=

Las estampas:

Vna espederita:

Vn marco con su vidrio en la escalera=

La prensa cubillo y cubo:

Las tablas de la vodega:

Los zoquetes de tener las cubas:

El pesebre dela cabalezira (sic - ”zira”):

Las mensuras de medir grano:

El peso de pesar oro y la romana:

El torno de ylar, y la aspa:

Vna comporta (sic) vieja y artesa de salar tozino=

Dos chupas de paño segobia vsadas mucho=

Vna azafatilla; dos candeleros de azofar=

Cinco cuberteras (sic) de ollas:

Dos saleros dos zacutos de traer pan de Iglesia=

117. IEA, id., 19at., 3.

118. IEA, id., 50at.-51.

El paño de afeitar:
 El espejo, salbilla, y plancha se han sustraído:
 La caja de concha:
 Veinte y dos varas de estopa y onze terliz estopa=
 Como dos dozenas de azeite:¹¹⁹".

Atal hau bukatzeko, esagun Iberoren denboran, 1771n, hasi zela Izun *Plan benefical* deitua egiten, 1796an izan zelarik onartua¹²⁰. Beraz, hil ondoren, bera 1783ko azaroaren 28.ean hil baitzen¹²¹, 1754 urtetik zendu arteraino Izuko *abad* izan zela. Fede handikoa, apaiz lanerako behar zituen liburuz ongi hornitua, langilea, estimatua, baketsua izan zela esango genuke, auzitxoren bat gorabehera. Egiazko auzia bera hil eta berehalaxe etorri zen, bere ilobek piztuta.

4. EUSKAL IDAZLEA

4.1. Idazlearen bila

Iberok ez du inoiz idatzi bera dela prediku eta dotrinen egilea, ez du bere izen eta abizenik ipini, testu guztietan noiz izan den moldatua eta/edo botaa ezartzen duen arren. Hala ere, egia osoa esateko, aitortu behar dugu badagoela 2. testuaren estalkian, goiko bazterrean, *Juan* hitza, testuaren egileak berak, hots, "*Juan Martin*"ek egina izan litekeena. Baina, bere izena ez badu ipini ere, ipini du bi aldiz herri baten izena. Horrela, 3. testuaren estalkian *Izu* ikusten dugu 1757-an, eta 11.aren estalkian *Izu y Junio dos del año de 1770*, gero urtea ez beste guztia ezabatu badu ere. Zer esan nahi du *Izu* horrek, horko parrokuak egina eta bertan botaa dela ala beste herriren batekoak edo komenturen batetik etorritako predikariren batek?

Izuko *abad* edo parrokoa izan zitekeela autorea pentsatzera ailegatu baino lehen, denbora luzea joan zitzaigun, ez baikeneukan ahazturik prediku horietako euskara Goñerrikotzat emana geneukala beste lan batean¹²². Egia ezagutzeko argia *Izu y Junio dos del año de 1770* datutik etorri zitzaigun, ohartu baikinaren halako batean data hori ez zela predikatu zuenaren igandeari zegokiona, aurreko egunari zegokiona baizik. Beraz, idatzi zuen eguna eta *herria* genituela hor konturatu ginen.

Izuko parrokoa izan zitekeela bilatzen genuena bururatu zitzaigunean eta IEAan ikusi genuenean testuak paratu eta/edo predikatu ziren urteetan parroku bat-bera -Juan Martin de Ibero- izan zela herri horretan, parrokia etxera, *Apezetxea* deitzen dutenera joan ginen idazkera erkatzeko asmoarekin. Baina zoritxarrez jakin genuen 1838 urtean sute batek erre zituela parrokiako liburuak¹²³. Ezin erkatu, bada, eta ezin egiaztatu gure ustea.

119. IEA, id., 22-22at.

120. Ik. José Goñi Gaztambide, *Historia de los obispos de Pamplona. S. XVIII. VIII*, Iruñea 1989, 57h. or.ak.

121. IEA, Navarro 2343, 4, 5.

122. *Euskera*, XXVI (1981-1), 355hh.

123. IPA (Izuko Parrokia Artxiboa), *Bataiatuen Liburua, 1781*. Baina 1845 urtean izan zen egina, jendeari galdetuta, Izuko parrokia liburuak 1838 urtean erre baitziren: "los cuales (Izuko parrokia liburuak) fueron quemados el día primero de Abril de mil ochocientos treinta y ocho, en un incendio que padeció la casa Abacial y sus efectos" (liburuaren hasieran).

Gure testuetako 7.ean -1768koa, estalki gabea, beraz pixka bat zaharra-
goa¹²⁴ izan daitekeena- badago errubrika antzeko bat. Ez dago ordea pertso-
na izen baten ondoan, baizik eta latinezko *Omnia sub correctione Sanctae Ro-
manae Ecclesiae* (sic -ss-) esaldiaren aldamenen. Egilearen errubrika izan zi-
tekeela uste genuelarik, IEA eta AP gordailuetara jo genuen, ea Izuko parro-
kuaren sinadura eta errubrika aurkitzen genituen eta hori bezalako errubrika
erabiltzen ote zuen. Artxibo horietako bigarrenetan testamentuan eta beste hi-
ru agiritan -denak 1766 urtekoak- aurkitu genuen bilatzen genbiltzana¹²⁵,
baina gauzatxo batean ez zetozen bat errubrikak, izen-abizenetako idazkera
berdina zelarik Iberoren predikuetan ikusten genuenarekin, ustez. Azkenik,
IEAan aurkitu genuen nahi genuena: bai gure testuko ustezko errubrika eta
bai Protokoloetakoa¹²⁶.

Zer gertatzen zen, bada? Bi errubrika modu erabili zituela Iberok. Lehen
moduko errubrika 1758tik 1766a arte aurkitu ahal izan dugu, eta bigarren
modukoa 1769tik 1771 arte, ez dugula ikusi ez zaharra ez berria 1767-1768
urteetan eta 1771tik aurrerakoetan. Beraz, zaharrak behean zeukan marra
horizontala desagertu egin da 1767an edo, eta guk 1768ko euskal testuan
ikusten genuen ustezko errubrika benetan hori da, Iberoren bigarren modu-
ko errubrika¹²⁷.

Badago gainera IEAan berak idatzitako agiri osorik, sinadura edo izenpe
eta errubrika eta guzti. Hortaz, ziurki Munarrizko seme eta Izu herri xume-
ko *abad* edo parroku izan zen Juan Martin de Ibero da Nafarroako zeruan
distiratzten duen euskal idazle berria, Elkanoko Lizarragaren aitzindaria, Li-
zarraga 1771n hasi baitzen idazten eta Iberok 1755etik 1773a arte edo ihar-
dun baitzuen lanbide horretan.

4.2. Zer, zenbat eta noiz idatzi zuen

Igandeetan emateko sermoi eta dotrinak dira gureganatu diren testuak.
Ezagutzen ditugunak 23 dira, horietako 7 Jose Maria Satrustegik dituela¹²⁸
eta beste 16ak gure eskuetan daudela, *ASJU*-n agertzeko emanik¹²⁹. Askoz
gehiago idatzi zituen noski, baina ez dira gure eskuetaratu. Badakigu, horien
artean, aitortzari buruzko 6 dotrina galdu direla, abenduko 3. iganderako 1
eta gurasoei buruzko 2¹³⁰. Noiz izan ziren moldatu edo predikatuak? Ditugun
datuen arabera 1755-1774 urteen artean, horiek barne, izan ziren zertuak.
Lehenbizikoa 1755ean izan zen moldatu eta predikatua segur aski, egileak

124. Ik. 132 oharra.

125. PA, Miguel Antonio Belza 1242, 83. Horietan azkenekoa 1766.11.29.goa da.

126. IEA, Villava 2231, 7, 12at. eta 14at. Hemen aurkitu dugu lehenbizikoz errubrika berria.

127. Urteak joan ahala, beste aldaketarik ere izan da, hala nola *g* kontsonantea idazteko modua,
1764 eta 1766 urteetan arras desberdin egiten duela, etab.

128. *euskal*, 91h.

129. *Juan Martin de Ibero (1729-1783), Izuko parrokuaren testuak* da lanaren izenburua eta
ASJU-n agertuko da.

130. Aurreko oharrean aipatu lanean gurasoei buruzko BI falta direla esaten dugu. Baina hori ez
da egia. LAU prediku agintzen dira, umeeek gurasoekiko dituzten eginbeharrak erakutsiko dituztenak,
eta horietatik BI falta dira: behar dieten *amorea* eta eman behar dieten *alimentue edo sustentoa*. Gaine-
ra, eta LAU izan litezke hauek ere, paragrafo horren hasieran -ik. *euskal*, 106, 2 §- prometatzen du gu-
rasoek umeeikiko dituzten eginbeharrak ere azalduko dituela: "Asico neiz, humen obligueciotatic, gue-
ro expliquetuco ditut gure atsoenac". Beraz, SEI bat falta dira edo falta daitezke.

horrela baitio eta darabilen papera *Ospital General de Pamplona* lantegiak egi-na da, fabrika hori 1755 urtean hasi zela paper egiten¹³¹. Ez da horren segu-rua 1773 urtea aipatzen duenaren data, predikuaen 1. orrialdean ematen baita berri hori, ez estalkian -estalkia falta (?) zaiolarik-, eta hemengo data za-harragoa izaten da 1. orrialdekoa baino. Guk ditugun testuetan ez dago 1773 urtean idatzitakorik, bai urte horretan predikatua izan den bat: 15.a, bertan 1771, 1772 eta 1773 ikusten baitugu. Argi dagoenez, 1771n egin eta botaa eta hurrengoetan berriz ere predikatua. Sermoi guztiek tapagailua zutelako susmoa dugu¹³².

Bestalde, Satrustegik emandako lehenbiziko testua¹³³ eta guk *FLV* aldiz-karian argitaratua¹³⁴ bat-bera dira, gero ohartu garenez. Bata 1756 urtekoa da eta bestea 1758koa edo urte honetatik aurrerakoa, ur markak 1758 baitio. Beraz, Ibero bizi zelarik beste batek aldatu edo kopiatua da, ia ez diola uki-turik eman¹³⁵.

Ur-markari gagozkiola, 1, 2 eta 4 testuetan, 1755 eta 1757 urtekoetan, *Ospital General de Pamplona* ageri da; azkeneko 10etan I BRVN (-*N* buruz behera) / BEARN (-*N* buruz behera); eta besteetan, I FARGUES / NAVA-RRE, 3 zirkulu, bi esku antzeko eta FIN eta 1755, edo M RAGETE (sic -*GE*-) / BEARN, 3 zirkulu, bi esku antzeko eta FIN eta 1763. Testu bakoit-za berex dago edo zegoen josia hari zuriz, guztira 136 orrialde osatzen dituz-tela, 210/215 mm. luze eta 147/154 zabal direnak. Bat orrialde zenbakirik gabe dago, besteak aurreko aldetik bakarrik daudela zenbakiz horniturik.

4.3. Predikuen zerrenda

Berex ipintzen ditugu Munarritzen eta Muruzabalen aurkituak.

4.3.1. Munarritzen aurkitu eta *ASJU*-n agertzeko daudenak ematen ditu-gu lehenbizi, beren ordena aldatu egin dugula askotan, dataz gainera gaia ere hartzen dugula kontuan¹³⁶.

Ur-markako data	Estalkiko data	1. orreko data	Testuaren izenburua
1. (1755) ¹³⁷	—	1755	“Domingo quarto de Adviento”.
2. 1755 (?) ¹³⁸	1757	1768	“Dominica tertia adventus”.
3. 1755	1757	—	“Domingo Primero de Quaresma”.
4. 1755 (?)	1757	—	“Dominica secunda Quadragesimae”.
5. 1756	—	1759	“Sermon de Penitencia”.
6. 1763	1766	—	“Doctrina del pecado mortal”.

131. *Juan Martin, Sarrera* atalari ipinitako 4 oharrean.

132. *Predikuen zerrenda* izendatu dugun hurrengo atalean ikus daitekeenez, hiru testutan ageri da data bai estalkian bai 1. orrialdean. Behin bi datak urte bat-berekoak dira eta birritan estalkikoa zaha-rragoa da bestea baino.

133. *euskal*, 92-96.

134. “Goñerrin aurkitutako testuak (VII)”. *FLV*, 68 (1995), 173-190.

135. Aldatzaileak ez du Iberok erabili zuen zedilarik ezarri, eta beste aldakuntza txikiren bat ere badago. Eta 1758 urtea erakusten duen ur-marka daraman paperean kopiatu du. Beraz, pentsatu be-har da Iberok berak utzi ziola, alda zezan. Erantsi behar dugu, bestalde, testu hau eta “Goñerrin aur-kitutako testuak (VI)” izenarekin argitaratu genituenen egilea bat-bera izan zitekeela esan genuela: *FLV*, 67 (1994), 521-554. Hori hala den, ez dugu gehiago aztertu.

136. *ASJU*-n 3 eta 4 direnak, hemen 4 eta 3 dira; han 8 eta 9 direnak, hemen 9 eta 8 dira; han 10, 11, 12, 13 eta 14 direnak, hemen 13 (sic), 14 (sic), 12, 11 eta 10 dira.

137. Paperak ez du erakusten dataren berririk, baina 1755ekoa izan behar du.

138. 2. eta 4. predikuek, 1.ak bezala, *Ospital General de Pamplona* diote, 3.ak honako hau daka-rra: I FARGUES / NAVARRE batetik, eta bestetik, hiru zirkulu, gurutzea eta koroa horien gainetik, bi esku antzeko eta FIN ezkerrean eta 1755 (sic — 5) irakur daitekeena eskuinean.

7. 1761	–	1768	“Del Juicio Vniversal”.
8. 1761	–	1769	“Dela reverencia, que deben los hijos â sus Padres”.
9. 1761	–	1769	“Doctrina para el Domingo segundo de Adviento”.
10. 1761	–	1770	“Para el dia de Reyes”.
11. 1761	–	1770	“Para el Domingo segundo despues dela Epifania”.
12. 1761	–	1770	“Domingo de Quinquagesima” (sic).
13. 1761	–	1770	“Domingo segundo despues de Resurreccion”.
14. 1761	1770	1770	“Dela Dominica dela Pascua del Espiritu Santo”.
15. 1761	–	1771	“Dela muerte”.
16. 1761	–	1772	“Domingo quinto dela resurreccion”.

4.3.2. Izarbeibarreko Muruzabalen aurkitu eta J. M. Satrustegik *euskal testu zaharrak. I. liburuan* (ETZ) argitaratuak eta oraindik argitara gabe (AG) daudenak, goian ipini dugun zenbatzea jarraituz:

Ur-markako data	Estalkiko data	1. orr.eko data	Testuaren izenburua
17. ETZ ¹³⁹	–	1756 ¹⁴⁰	“Domingo primero de Quaresma”,
18. ETZ–	1758	–	“Dominica Resurrectionis”.
19. AG	–	–	“Dela Circuncision”.
20. ETZ	–	1769-74	“Quarto Mandamiento. De la obediencia a los Padres”.
21. AG	1769	1771	“Dela Natividad de la Gloriosa Virgen Maria”.
22. AG	–	1771	“Dominica quinta Resurrectionis”.
23. AG	–	1773	“Dominica tertia Quadragesimae”.

4.4. Nongo euskaran idatzi zuen

Bonapartek bildu zituen datuez baliaturik eta horietan oinarriturik, Goñerrikotzat jo genuen 16 testuetako euskara¹⁴¹. Jakinik orain Goñerriko Munarritzen jaio eta bizi izan zela egilea, Izu izan zela bere lehenengo lan lekua eta bakarra, izuratu eta berehala gurasoak eta ilobak parrokia etxera eraman zituela, ama 5 urtez eta aita 11 urtez izan zituela solaskide, Juan Bautista iloba 7 urtez eta Fermina beste iloba 19 urtez izan zirela bere menpeko eta laguntzaile, ulergarria da Goñerriko euskaran idatziak egotea bere lanak. Gureganatu diren predikuetan lehenengoa dena, lehenbiziko urtean moldatu zuen, eta esanenezake azkenekoan ere euskara modu bera darabilela. Ez da harritzekoa ere, Oltza eta Goñi herrietako euskara ia berdina baitzen. Printzeak *Le cantique des trois enfants*¹⁴² bi herri horietako hizkerara itzulirik es-

139. Multzo honetako ur-marken berririk ez dugu.

140. Data hau ez dago 1. orrialdean, hondar orrialdearen bukaeran baizik.

141. Munarritzen aurkituak izanak, jakina, bideratu gintuen Goñerriantze.

142. Louis-Lucien Bonaparte, *Le cantique des trois enfants dans la fournaise*, Londres 1869. Ik. *Opera Omnia Vasconice*, L.L. Bonaparte, Euskaltzaindia, Bilbo 1991: cf. 97-102. Goñi eta Oltzako itzulpenaren gainean hau dio: “Sous-dialecte occidental. Basque d’Olza et de Goñi”.

kaintzen duela, sei aldiz bakarrik markatzen ditu desberdintasunak, behin ez beste guztietan fonetika eta morfologia aldaerak direla.

Esango genuke Munarritz aldean ikasia erabiltzen duela nagusiki, Izu aldekoa ere aprobetxatzen duelarik. Baina herri horietakoak ez diren elementuak ere ageri dira, hau hobekien ikusten dela beharbada aditzean. Oltzan eta Goñin ez bezalako adizkiak ipintzen baitira, jasoago edo estandardagoa pentsa lezakeen erregistroa erabiltzen zuela. Esandakoa zehaztuz, hau dugu argitaratuak izan ziren eta argia ikusi gabe gelditu ziren lanetan.

4.4.1. *Le cantique*

Fonetika aldetik hau aurkitzen dugu: Goñin (G) “gueñen” eta “gueñic”, “doden” eta “zocē”, Oltzan (O) “gañen” eta “gañetic”, “dauden” eta “zocie”; morfologian, G “oñezturec”, O “ñezturec”; hiztegian, *leñoac* eta *calmac*. Iberok (I) hauek erabiltzen ditu: “gueñen” 1,7,2, “gueñeraco” 15,2 eta horrelakoak, salbuespen gisa “gañen” (sic -n-) 9,1, “gañeti” 15,1 eta antzekoak ez direla falta; “daude” 1,5,1 eta 15,6 eta “esçocēla” 4,4 -”oñeztur/ñeztur” ez da ageri-; *leño* 7,7 -eta *odei* 7,5-. Beraz, G aldeko euskara erakusten du Iberok, salbuespena “daude” dela.

4.4.2. *Le verbe basque*

Aurkitu eta ulertu ahal izan ditugunak erkatzen ditugu. G “ziena” ‘zizun’ -alokutibo femeninoa- XXV/253¹⁴³, O “ziñe” ib., I “niñe” ‘nizun’¹⁴⁴; G “gin-tue” ‘genituen’ XXV/253, O “giñitue” ib., I “cindituela” ‘zenituela’¹⁴⁵; G “zi-ñe”¹⁴⁶ ‘zinen’ XXVII/255, O “zinde” ib., I ciñe 6,8, ziñe 13,2; G “giñe” ‘ginen’ XXVII/255, O “ginde” ib., I “guiñeque” ‘ginateke’ 10,5. Beraz, G aldekoa berriz ere, alokutiboa salbu.

4.4.3. *Materiales*

FLV aldizkarian, Bonapartek bildu eta bere lanetan aprobetxatu zituen, 3 eskuidatzi argitaratu genituen *Materiales* ... izeneko lanean¹⁴⁷. Atal honetako datuak ez dira inprimaturik daudenak bezain fidagarriak, azken begiratu eta ukitua falta baitzaie, harrobi bateko harri landu gabeei bezala. Hala ere, baliatzen gara hemen horietaz.

4.4.3.1. Fonetikaren arloan bokal armonia aipatzen dugu. Bi herrietan gertatzen da, baina G gehiago O baino, han ezkerrerantz ere ematen dela *ai* diptongoan, hala nola G “zein” ‘vena’ 139,167 sarrera, O “zain” ib., “^vsei” ‘jai’ 152, 817 eta “^vsai” ib., “^vseyo” ‘jaio’ 159, 1.224 eta “^vsayo” ib., “^vorei” ‘orain’ 170,23,2 eta “^vorai” ib., “^vorñik” 171,24, 19 eta “^vorñik” ib., “^vzembet”

143. Bonaparteren eta Euskaltzaindiaren argitaraldien orrialde zenbatzea markatzen dute zenbaki hauek.

144. *euskal*, 96, 2§ (1756koa): “nauronec erran *niñe*”.

145. *euskal*, 101, 1 (1758): “confesatu *cindituela*”.

146. Inprimaturik “*zine*” dago, baina errakuntza dela uste dugu.

147. “*Materiales* para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi”, FLV, 39 (1982), 133-228. Ik. Carlos González Echegaray eta José Antonio Arana Martija, *L.L. Bonaparte. Eskuizkribuak-Argitarapenak / Manuscritos-Publicaciones*, Euskaltzaindia 1989: hor 40, 41 eta 42 zenbakiekin markaturik dauden agiriak dira.

170,22,16 eta “zembait” ib. Iberok: “zeñe” ‘sustraia’ 11,3, “ssaiec/sseietan” 3,7/6,4, “ssaio/sseio” 2,5/14,1, cembait” 9,6. Eta oroi gaitezen *Le cantique* atalean “leñnoac”, “gueñen” eta “gueñeraco” azaldu direla.

G aldeko euskara dugu, zalantza eta bitasuna ageri dela Iberoren idatzietan: “ssai” eta “orai” maizago “ssei” eta “orei” baino, baina behin “oraiñic” 13,5 eta aldi bana “oreñi” 3,3, “oreñi” 3,3 eta “oreñic” 1,7, eta hiruna “ssaio” eta “sseio”.

4.4.3.2. Morfologia. Deklinabideko zenbait gertakari eta besteren bat parekatzen ditugu.

Izenen deklinabidea. G datibo singularra “gizonai” 164,10,8 omen da, O “gizonari” ib., soziatibo singularra “gizonareki” 165,10,17 eta “gizonaki” ib., partitiboa bokalez bukatuetan “idirik” 165,11,18 eta “idiki” ib.. Iberok: “tristeari” 4,7, “ederrarequi” 1,4 eta “iriric” 1,4. G alderantz makurtzen da.

Erakusleena. G datibo singularra “oni”, “orri” eta “arri” 169,19,12, O “onei”, “orre” eta “arrei” ib. Iberok: “oni” 1,4, “orri” 16,6 eta “arri” 6,5. Goñin bezalaxe.

Pertsona izenordainena. G “zek/zetas” 168,17,15/168,17,17, O “zuek/zuetas” ib., G. “zerori” 168,18,8, O “zeroi” ib. Iberok: “zuec/zuetas” 15,8/10,1, “zaurori” 6,9. Bi (?) herrietakoa.

Izenordain galdetzaileena. G “zerek/zek” 170,21,11, O “zerek” ib., G “zetas” etab. 170, 21, 13-16-19, O “zertas” etab. ib. Iberok: “cerc” 5,9, “cetan” 6,5 eta “cetaco” 6,8. G alderantz makurtzen.

Besterik. G “afaldu ondorean” 166,13,20, O “afaldu ondoan” ib., G *ichsin* ‘irazeki, ixiotu’ 156,1077, O *ichiki* ib., G “gastezutu” 167,14,20, O “gastezitu” ib. Iberok: “probatuondoan” 4,3, “ichiquiric” 15,2 eta “isiquiric” 9,10, “gastezutuen” 1,7 eta 9,8. O aldekoa nagusi.

4.4.3.3. Izen zerrenda bat aurkeztzen dugu orain, izenekin batera ipintzen ditugula zenbait izenordain mota, eta aditz, zenbatzaile, posposizio eta adberbio bat edo beste. Goñi eta Oltza herrietako euskaran ageri diren zenbait alde fonetiko eta morfologiko erakusten dira behin izan ezik *-arrano belch* eta *erlanch* ‘vautour’-, eta Iberok darabilen hizkerarekin parekatzen dira. *Materiales* lanean ezagutzera eman ditugun eskuidatzietan aurkitutako desberdintasun nabarmenenak ikusiarazi nahi ditugu zerrendako hitzekin: nola esaten ziren Goñi eta Oltzan eta nola erabili zituen Iberok. Bi herrietako euskara ageri da, ez dela erraza esaten nongoa gailentzen den.

<i>Goñi</i>	<i>Oltza</i>	<i>J.M. Ibero</i>
argizegi 141,309	argizeri ¹⁴⁸	arguizeguie 12,5
arrano belch 144, 440	erlanch ¹⁴⁹	Arranoa 11,3
aun ¹⁵⁰ 154, 928	eun	eun 16,3; berraun 13,6
aurzutu 167,14, 19	aurtzitu	aurzutu 5,3
beiti ‘beti’ 171,24,1	beti	beti 2,3
belorrai (sic) 144,437	belorrai	belorreiec 5,3
bezein 171,25,7	bejain	bequein 12,5; becein 12,6; becein 1,3
borz 153,905	bortz	borç 5,10; bortç 16,4
ereki ‘semer’ 160,1273	eraiki	ereguichen 10,4; eriguichen 10,4
erozein 170,22,15	edozein	edocein 9,4; edocein 15,4; etab.

148. Oltzako hitzak Goñikoak dauden zenbakietan aurkitzen dira.

149. Ik. *saizuri* ‘vautour blanc’: *Materiales*, 144, 444 znb.

150. *Materiales*: ik. “aumebat” 154, 929, “iruetanaun” 931, baina “berraun” 930 Goñi eta Oltzan.

esene ¹⁵¹ 140,233	esne	esnea 10,6
gastezutu 167,14,20	gastezitu	gastezutuen 1,7; 9,8
igor 170,22,20	iñor	ior 3,8; 10,3; iorc 2,1
iche, 151,772	eche	echeoiec 3,6; echen jabeec 3,7
ichsin 156,1077	ichiqui	ichiquiric 15,2; issiquiric 9,10
Jangoikoa 172,2,4	Jaungoikoa ¹⁵²	Jangoico 4,8
leño 137,64	laño	leño 7,7 -eta <i>odei</i> 7,5-
lore 146,565	flore	lore 6,8
ondorean 166,13,20	ondoan	“probatu ondoan ” 4,3
orduen 171,23,4	orduan	orduen ‘tunc’ 4,5; 7,9
orei ¹⁵³ 170,23,2	orai	“orai” 19 aldiz; “orei” 7 aldiz
oreitu 159,1229	oroitu	“Orai ceite” 8,2; “Orei ceite” 14,4. Ia beti “oreitu”.
oreñik 171,24,19	orañik	“orañic” 13,5; “oreñi” 3,3. Ik. 3.1 atalean fonetikari buruzkoa.
sei 152,817	sai	“ssaieco” 3,7; “sseietan” 6,4. Maizago “ssai” forma.
seyo 159,1224	sayo	“ssaio” 2,5; “sseio” 14,1. Iruna aldiz.
šeki ‘se lever’ 157,1160	saiki	sseguichen 14,7
zein ‘vena’ 139,167	zain	zeñe ‘sustraia’ 11,3
zembait 170,22,16	zembait	cembeit 9,6
zetako 171,25,9	zertako	cetaco 6,8; cetan 6,5

4.4.3.4. Adizkien arloan begiratzen dugu orain.

4.4.3.4.1. Goñi eta Oltzan berdin ez diren zenbait adizki ipintzen ditugu aurrez aurre eta Iberok erabiltzen dituenarekin erkatzen. Esango genuke Goñikoa gailentzen dela, Oltzakoaren alde dudarik gabe daudela *niñe* alokutiboa, *Le verbe basque*-n *ziena/ziñe* aipatu ditugu, eta “*dauzkiela*”.

dozkiela 163,8,5	dauzkiela	dauzqui 67; dauzquien 4,6
ziñe 177	zinde	ciñe 6,8; ziñe 13,2
giñe 177	ginde	(Ik. “guiñeque” ‘ginateke’ 10,5)
giñeki 177	gindeke	guiñeque 10,5
duze 192	duzie	duce 1,5,1; 5,1,2; etab.
niena 197	niñe	niñe ¹⁵⁴
zintue 199	ziñitue	cindituela 101,1 (1758) ¹⁵⁵
zuzte 199	zituzte	cituste 16,1,1; citusten 2,4

4.4.3.4.2. *Verbisation* deitzen duenaz ari dela, Bonapartek adierazten du goi-nafar hegoaldeko euskalkiari buruz oso erabilia dela “dans ses trois sous-dialectes”, Elkano, Gares/Puente la Reina eta Oltzako adibideak aurkezten dituela¹⁵⁶. Pentsatzen dugu Oltzak Goñi aldekoa ere hartzen duela esaldi horren arabera, honela itzuli behar baita, hots, ‘bere hiru azpieuskalkietan’: azpieuskalki guztiak hartzen ditu, beraz. Baina *Materiales* begiratzen badugu¹⁵⁷, hor aurkituko dugu Oltzan “ikustaunt” 161,2,10 eta Goñin “ikusten *dut*” ageri direla, “ikustauntzie” eta “ikusten *duze*” etab., “*bauzie*” eta “*baduze*” 161,3,13 etab., “*naut*” eta “*nai dut*” 162,4,1 etab. Iberok “*ssatenducu*” (sic

151. Baina “esnes” eta “esneas”: *Materiales*, 165, 11, 20.

152. Baina “Jangoiko” 136, 1.

153. *Materiales*, ik. 170, 23, 2: ‘egun/gaur’ esan bide du hemen.

154. *euskal*, 96, 2 (1756): “nauronec erran *niñe*”.

155. Ik. 145 oharra.

156. *Le verbe basque/Opera Omnia*, 160/424.

157. *Materiales*, 161h., 2h. znb.

-c-) 1,4 eta antzekoak erabiltzen ditu, baina “bauce” 3,2 etab., “nauce” ‘nahi duzue’ 1,4,1; 15,8, “beirtuzu” ‘behar dituzu’ 9,5 eta honelakoak. Beraz, Oltzakoak omen ziren formak ikusten ditugu, ia beti.

4.4.3.4.3. Adizki forma jasoagoak eta estandardagoak edo ikusiko ditugu hemen, Goñin eta Oltzan berdinak omen zirenak ez bezalakoak, baina Iberok erabiltzen zituenak.

<i>Goñi eta Oltza</i>	<i>Ibero</i>
bazindeza ‘bazeneza’ 222	bacenza 2,6
bezkiote ¹⁵⁸ 218	bezozquie ‘biezazkie’ 3,8
dere ‘dir’ 194	dire 3,4. Beti horrela.
naike ¹⁵⁹ ‘naiteke’ 179	neiteke 10,2
tio ‘dizkio’ 195	dizquió 4,9; dizquio 5,2
tiote ‘dizkiote’ 195	dizquie 4,6
tizu ‘dizkizu’ 196	dizquizen 1,4
tu ‘ditu’ 195	tu 1,7 eta ditu 1,1. Maizago <i>tu</i> .
zada ‘zara’ 162,5,10	zara 1,4. Bi aldiz “zada” 1,4 eta 8,5
zagun ‘diezagun’ 212	zagun 3,9 (bitan); dezagun 1,4 (behin)
zake ‘dezake’ 213	çaque 9,2; dezaque 2,3. Maizago <i>zake</i>
zarezu ‘iezadazu’ 217	zadazu 6,8; 8,5
zere ‘ziren’ 177	cire 1,6; ciré 5,6
zitiote ‘zizkioten’ 199	zizquie 14,2
zogun ‘diezaigun’ 211	zogun 3,3; dezogun 1,4. Ia beti <i>zogun</i>
zoten ¹⁶⁰ 211	dezoten ‘diezaizen’ 5,2 (behin)

Azpiatal hau, hots, *Nongo euskarari idatzi zuen*, bukatzeko ez dugu ahaztu behar gure parroku eta predikariak ez zirela dialektologia lanetan ari, ba-koitzak bere hizkera zuela noski, ez bere herriko euskara garbia, beste inongo eta inoren hizkerarekin kutsatu gabea. Segur aski bazituzten bestek moldatutako erlijio gaiak, Munarritz eta Muruzabalgo multzoak bezala herriaren hizkuntzan idatziak zeudenak. Inprimaturik oso gutxi zegoen, batez ere euskal predikuak prestatzeko baliagarri izan zitekeenik. 1735 urtean *Apezendaco* eta beste kristau ikasbideren bat irakur zezakeen, beharbada *Guero* eta Mendiburu eta Kardaberazen lehen lanak izan zitzaizkeen. Baina ez du inoiz euskal libururik aipatzen gaztelaniazkoen aldamenean. Larramendiren eraginik ere ez dugu aurkitu.

Nola, norekin, non ikasi zuen bere sermoi eta dotrinetan erakusten duen euskara modua? Bere etxeko eta herritarrekin hitz eginez bakarrik ez, noski. Non egin zituen apaiz ikasketak, nongo irakasle eta ikasle-kiderekin? Horrela aldatu eta garatu zen noski etxean eta Munarritzen ikasi zuena.

5. ERDAL TESTUAK ETA BILDUMA

5.1. Erdal testuak

Munarritzko multzoan XVIII mendeko 55 euskal eskuidatzi ditugu¹⁶¹, bat ez beste guztiak sermoiak, 12 bat predikari-parrokuk idatziak eta XIX mendean 1817 urtetik 1832a arte berriz baliatuak. Horiekin batera mende bere-

158. *Materiales*, 218, adiera hauekin: ‘biezazkiote’, ‘biezazkie’ eta ‘biezazkiote’.

159. *Materiales*, 174, 6: “ni eror *naiteke*” Oltzan, baina *naike* Goñin.

160. *Materiales*, 211, adiera hauekin: ‘diezaigun’, ‘diezaigun’, ‘diezaigun’, ‘diezaigun’, ‘diezaigun’.

161. Lanaren hasieran esan dugun bezala, Langarikarenak XIX mendearen hastapenekoak ere izan daitezke.

ko 6 erdal eskuidatzi ailegatu dira, beren egileak ez direla euskarazkoak idatzituztenak, eta 1819tik 1829a arte berriz baliatuak izan ziren. Zaharrena Izukoka da, 1707koa, Iberok 1755ean idatzia baino 48 urte lehenagokoa. Berriz ere Izun 1719an emana, Joseph de Olmos, Asiaingo semea, zela *abad* parroku -1687tik 1730a arte izan zen bertako parroku-; Aratzurin 1732an entzuna, bertako semea zen Martin de Eraso zela *vicario* parroku; Asiain, Etxauri eta Ororbian (?) ere predikatua; eta azkenik 1824an berriz erabilia. Herri horiek denak Izu aldean daude eta bata bestetik oso hurbil. Sermoi horietako berriena (?) 1784an Gesalatz ibarreko Argiñano herrian botaa da “al tomar la bula año de 84 Argo.”, eta 1819, 1825 eta 1829 urteetan berriz erabilia.

Muruzabalgo multzoko euskal sermoiak 1813-1832 urteen artean izan ziren berriz erabiliak. Erdarazkorik ere badago, eta Munarrizkoan baino ugariago dira, horietako bat 1814an berriz predikatua, gainerakoei buruz ezin dugula ezer esan, ez baititugu aztertu. Interesgarria gerta daiteke jakitea badirela Langarikak euskaraz eta erdaraz idatzitako testuak, bata bestearen itzulpena; bai eta berak euskaraz egindakoaren erdal itzulpena beste batek zerturik, edo alderantziz, beste baten erdal testua berak euskaraturik. Ikusi dugu ere Ezkurran 1760an erdaraz botariko hitzaldirik, eta Sesman, ez dakigula noiz -ez ordea inolaz ere Pinillos Batxilerraren garaian- erabilitakorik ere bai.

5.2. Noiz sortua den bilduma

Esan dezakegu bi multzoak bilduma bakar bat osatzen zutela hasi 1813 urtetik eta 1832a arte, denbora horretan guztian pertsona bakar baten eskuan egon zirela testu guztiak, garbi ikusten denez erkatzen dugula urtea adierazten duten zenbakiak egiteko modua eta erabilitako luma eta tinta. Bada Iberok arazo honetan ikustekorik? Kontuan harturik 1707koa bi aldiz eta bi urte diferentetan entzun zela Izun, eta aldeko herrietan ere izan zela predikatua, berezkoa da pentsatzea Izu herriarekin eta bertako apaizarekin zer ikusirik izan zezaketela testu horiek eta beharbada Iberoren eskuetan egon zela bilduma. Baina 1784 urtean Argiñanon predikatua ezin zitekeen beregana ailegatu, 1783an hil baitzen.

Pedro Fermin de Azkarate, Munarrizko semea, Aizpungo *abad* 1751tik 1809a arte, Juan Martinen herrikidea, bi urte zaharragoa hau baino, bere adiskidea eta honek bere *cabezalero* izendatua testamentuan, datorkigu burura eta bera izan liteke paperak eskuratu zituena, zendua zen lagunaren zerak saldu ondoren, eta Argiñano eta Langarikarenak erantsi zizkiena. Baina arabar kaputxinoarenak nola joan zitezkeen bilduma horretara eta Aizpunerara? Frantziarekin izan zen guduan Langarika eriak eta zaurituak zaintzen aritu zen 1793, 1794 eta 1795 urteetan Elizondo, Bertizarana eta Martzillako eritegietan¹⁶². 1795 urtean prest dago berriz ere eritegietan laguntzeko kapi-

162. Crispín de Riezu, *Necrologio de los frailes menores capuchinos de la Provincia de Navarra-Cantabria-Aragón*, Iruñea 1958. Ik. 308. or.

163. Kaputxinoen Artxiboa. Iruñea. *Libro de Capítulos, etc. (1655-1838)*: ik. 539h. or., batez ere 543 or.

lau gisa, Konbentzioaren gudarosteak Iruñea inguratuko zuen beldur zirela¹⁶³.

Ez dakigu noiz eta non hil zen, baina urte horretako azaroan 49 urte zituen, beraz pentsa daiteke hurrengo mendean jarraituko zuela mundu hone-tan bizirik. Ez da ageri *misionista* bezala, ez *bascongados* euskaldunen ez *castellanos* erdaldunen zerrendetan. Egia da Satrustegik, hark idatzitako prediku batean oinarriturik, herriren bateko parroku kargua hartzen aurkezten duela, artean apaiz berri zelarik¹⁶⁴. Hori c. 1780 urtean gerta zitekeen, 1780. 12.13.ean, Ibero bizirik zegoelarik, izan baitzen apaiztua¹⁶⁵. Baina gauza oso arraroa de kaputxino bat parroku izatea, eta areago hain gaztea zelarik¹⁶⁶. Dena dela, jarraitzen dugu sinesten Aizpun eta/edo Langarikak zer ikusirik izan dezaketela gure bildumaren sortzean.

6. INGURUKO HERRIETAKO ARIMAZAINAK

Bai Ibero eta bai bildumarekin zer ikusirik duten edo izan dezaketen eta bera bizi izan zen mendeko zenbait parroku etab. plazaratzen ditugu, nor non eta noiz izan zen arima arduradun ezagutarazteko. Berri laburrak dira normalki, non eta noiz jaioa, noiz apaiztua, herri jakin bateko parroku noiz izendatua, heriotza data eta horrelakoak. Herriz herri ematen ditugu berriak eta alfabetikoki ipintzen herriak.

6.1. Aizpun

1. Pedro Fermin de Azkarate, Munarrizkoa
Bataiatua: 1727.03.30.ean Munarritzen eta bertan jaioa.
Ordena txikidun: 1750.05.22.ean Iruñean.
Apaiz egina: 1752.12.22/23. Ik. IEA, Miranda eta A., 2.liburua, 126.
Aizpungo parrokutzat onartua: 1751.06.04.ean Iruñean.
Bat-batean hiltzen: 1809.03.09.ean Aizpunen. Ik. Villava 2139, 26 znb. eta Navarro 2693, 19 znb., 20. fol.
Juan Martinek bere testamentuan *cabezalero* edo testamentu betetzai-le izendatua, egiteko hori zintzoki bete zuela. Bera izan daiteke euskal/erdal bilduma jaso eta osoagotu zuena.
2. Juan Pedro Antonio de Goikoa, Goñi herrikoa
Apaiz ordenatua: 1803.09.24.ean Logroñon.
Aizpungo parroku hautatua: 1809.04.19.ean Aizpunen.
Elizak onartua: 1809.08.11.ean Iruñean.
Goñi herriko semea, bertan bizi zena eta bertako *coadjutor* 'laguntzai-le' zena. Ik. Navarro 2693, 19 znb.

164. ASJU, XVI (1982), 6hh.

165. IEA, *Libro de Matriculas / Illmo. S^{or} Lezo y Palomeque*, 25at.

166. Ezagutzen dugu, hala ere, *abad interino* izan zen kaputxino bat. Altsasuko *abad* edo parro-kua fusilatu zutelarik frantsesek 1811n, kargu hori lortu nahi zuten bi hautagairen artean auzi luze bat piztu zen, erabaki batera ailegatu arte. Bitarte horretan "Fr. Antonio Cascante Religioso Capuchino" a izan zen *abad interino* izendatua 1815ean, eta 1819a arte egon zen. Euskaldunberria zen Kaskanteko semea. Ez zen ordea gaztea, 67 urte baitzituen Altsasun 1819an hil zenean. Beste fraide bat ere ikus-ten dugu Goñin 1765ean, *cura interino* bezala ari dela lanean, baina ezin digu esan hau kaputxinoa ze-nik. Domingotarra edo izan zitekeen eta bere izena "Fr. Joseph de Ezcurra" zen.

6.2. Aratzuri

1. Martin de Eraso, Aratzurikoa
Apaiz ordenatua: 1711.06.30.ean Baionan.
Parrokutzat onartua: 1720.01.20.ean Iruñean.
Hiltzen: 1750 urtean Aratzurin. Ik. Ollo 1493, 10 eta Ollo 1624, 34.
2. Juan Miguel de Eraso
Parroku: 1750 urtean. Ik. Ollo 1624, 34.

6.3. Argiñano

1. Joakin Perez de Ziritza, Ziritzakoa
1735 urtean sartzen da parrokian, subdiakono dela. Ik. Villanueva 1809, 22.
2. Nikolas de Arrese, Gortzakoa ("lugar de Huessa")
1774 urtean Bessollako markesak izendatzen du, Ziritza hilik.
1775ean Elizak onartzen eta ematen dio. Ik. Villava 2256, 4.
3. Felix de Jauregi, Etxaurikoa
1813an sartzen da, Besollako *abad* zelarik.
1813an hil da Nikolas de Arrese. Ik. Navarro 2698, 12.

6.4. Asiain

1. Migel Otxoa eta Otazu
1701 urtean *abad* da. Ik. Ollo 1009, 23.
2. Juan Miguel de Satrustegi
1710ean sartzen da, Otxoa hilik. Ik. Ollo 1472, 1.
3. Joseph Antonio de Azkarate
1729an sartzen da, Satrustegi hilik. Ik. Almandoz 1856, 8.
4. Juan Frantzisko de Olmos, Asiangoa
1742an sartzen da, Azkarate hilik. Ik. Villava 2138, 1.
5. Pedro de Iltzarbe, Asiaingoa
1766an sartzen da, Olmos hilik. Ik. Almandoz 2019, 9.
6. Migel Tomas Martinez, Asiangoa
1786an sartzen da, Iltzarbe hilik. Ik. Navarro 2354, 15.
7. Juan Frantzisko de Olmos, Asiaingoa
1799an sartzen da, Martinez hilik. Ik. Navarro 2417, 22.

6.5. Azantza

1. Frantzisko Migel Perez de Azantza
1796an bera da parrokoa. Ik. Villar 2767, 4.
2. Martin Josef de Markotegi
1814.02.07.ean onartzen du Elizak, Azantza 1813.04.22.ean hilik. Ik. Navarro 2700, 9.

6.6. Etxauri

1. Martin de Zuasti
1706an hilik ... Ik. Echalecu 1381, 18.

2. Martin de Zenborain
1707an sartzen da, Zuasti hilik. Ik. Echalecu 1382, 13.
3. Juan Fermin de Goñi 1709an sartzen da, Zenborain hilik. Ik. Lanz 1223, 28.
4. Andres de Uitz, Etxaurikoa
1748an sartzen da, Goñi hilik. Ik. Villava 2177, 1.

6.7. Ezkurra

1. Pedro Joseph de Iriarte
1750ean Elortzera goratzen dute *-promovido-*. Ik. Villana 2134, 4.
2. Bernardo de Errazkin, Arruazukoa.
1750ean sartzen da, Iriarte Elortzera goraturik eta Ezkurrako jauregi-ko jaunak aurkezturik. Ik. Villava 2134, 4.
1772an behin-betiko bikario egiten dute “D. Bernardo de Erazquin”, 1754 (sic) urtetik 1772a arte “con caracter de amovible” izan zuelarik. Ik. Almandoz 2049, 5. Oharra. Errazkinen garaian bota zen erdal predikua.
3. Juan Joseph de Zabaleta, Leitzakoa
1796an sartzen da, Bernardo de Errazkinek utzirik *-renuncia-*. Ik. Moreno 2591, 8.

6.8. Goñi

1. Pablo de Amezketa
1765.03.12.ean hil zen. Ik. Ollo 1693, 22, 56. or.
2. Martin Joseph Marcotegi, Goñikoa
1765ean hautatzen dute, eta 1765.05.25.ean Elizak ematen dio ofizialki parrokia. Ik. Ollo 1693, 22, 65-65at. or.
3. “Fr. Joseph de Ezcurra” izan da “cura Interino” Amezketa hil ondoan. Ik. Ollo 1693, 22, 56. or.
4. Martin Joseph de Markotegi
1801 eta 1811 urteetan Goñiko “Beneficiado Coadjutor” da. Ik. Goñiko Parrokia Artxiboa, *Bataiatuak 1647 ...*
1814tik aurrera Azantzako *abad* parroku da, bertako parrokia liburuetan azaltzen denez. Oharra. Pentsatu izan dugu berak idatziak ote diren *FLV*, 49 (1987), 117hh. or. eman genituen Goñi herriko testuak.
5. Felipe Antonio Gulina
1826an “Abad interino” da Goñin. Ik. Villar 2863, 10, 33at.

6.9. Izu

1. Joseph de Baldelloz
1687an hiltzen da. Ik. Lanz 1150, 19
Oharra. “Baldelloz”, “Valdelloz”, “Baldalloz”, “Baldealloz”.
2. Joseph de Olmos, Asiaingoa
1687an sartzen da. Ik. Lanz 1150, 19.
3. Fausto Perez de Azantza, Izukoa
1730.09.21.ean hil da Olmos.
1730.12.23.ean Albako dukeak Azantza izendatu eta aurkezten du.
1731.01.12.ean Elizak parrokia ematen. Ik. Ollo 1536, 5.

4. Juan Martin de Ibero, Munarrizkoa
1754.05.27.ean dukeak izendatu eta aurkeztu du, 1754.03.11.ean hilik Azantza. Ik. Villava 2152, 5.
1783.11.28 hiltzen da. Ik. Navarro 2343, 4.
5. Miguel Tomas Martinez
1784.01.23.ean "Theniente de Izu" da. Ik. Navarro 2343, 4.
6. Josef de Olabarrieta, Urdulizkoa (Bizkaian)
1784.01.09.ean dukeak izendatu eta aurkezten du, Ibero hilik. Aizkorbeiko *abad* parroku zen.
1784.02.06.ean sartzen ofizialdi. Ik. Navarro 2343, 4.
1795.12.21.ean uzten du eta Bizkaira joaten da. Ik. Villar 2775, 8, 2. folioa, eta Irisarri 2483, 10, 1. folioa.
7. Joseph Antonio de Laskibar, Irurako (Gipuzkoan) erretorea
1795eko abuztua arte *interino* da Izun. Ik. Villar 2791, 19, 66at. f.
8. Juan Frantzisko de Olmos
1795eko abuztutik aurrera, Glariak hartu arte, *interino* da. Ik. Villar 2791, 19, 1. eta 66 at. f.
9. Frantzisko Ramon de Glaria, Burgikoa
1797.10.27.ean Albako dukesak izendatu eta aurkezten du.
1798.03.26.ean ematen diote ofizialki. Ik. Villar 2778, 10.28-28at.
10. Migel Antonio de Astrain
1805.03.10.ean Albako dukesak izendatu eta aurkezten du, Garruesko parroku *Cura parroco* dela. Ik. Navarro 2675, 1.
11. Markos Nuin
1805.07.23.ean *abad interino* da, Glariak utzirik, "por desistimiento de Dⁿ Francisco Ramon de Guelaria" (sic *Guelaria*). Ik. Navarro 2675, 1, 19-19at.
1805.08.27.ean ematen zaio ofizialki. Ik. Navarro 2675, 1, 22-23at.

6.10. Munarritz

1. Juan de Urreta
1754-1755 urteetan benefiziatu eta apaiz 'presbyter' da. Ik. Alman-
doz 1942, 24.
2. Juan Joseph de Ibero
1767.01.26.ean kapilautza du Munarritzen. Ik. Navarro 2263, 1.
3. Frantzisko Antonio de Asiain, Munarrizkoa
1776an *abad* bezala onartua da. Ik. Navarro 2305, 1.
4. Migel Antonio de Melida, Jaizkoa
1799.03.14.ean hil delarik Asiain,
1799.06.21.ean Melida da *Abad Interino*. Ik. Navarro 2423, 19.
1800-1824 urteetan parroku da, MEAaren arabera.
5. Juan Bautista Martinez de Lizarrondo
1824-1826 urteetan interino da. Ik. MEA.
6. Isidro Murugarren
1826-1850 urteetan parroku da. Ik. MEA.

6.11. Ororbia

1. Fernando Urritzola

- 1752 urtean hiltzen da, parroku dela. Ik. IEA, “Libro 7 de Titulos y Registros de 1743 a 1753”, 469at.-470at. fol.
2. Pedro de Goienetxe, Izaltzuko
1752.08.14.ean bikario egina da “Pedro de Goieneche”, ordena txikiduna, Leireko abadeak izendatu eta aurkeztua. Ik. IEA ut s.
1786 urtean hiltzen da.
 3. Migel Jose de Nabatz, Makirriaingoa
1786.08.16.ean ematen diote, apaiz ‘presbyter’ dela. Ik. IEA, “Libro 60 de Titulos y Registros de 1783 a 1790”, 185-185at. fol.

6.12. Urdanotz

Josef Antonio de Ibarrola
1809.07.15.ean Urdanozko *abad* parroku da eta Aizpungo *interino*.
Ik. Villava 2139, 26, 20. fol.

6.13. Ollo

Pedro Juan de Sagues, Senosiaingoa
1752an benefizio bat hartzen du Ollon. Ik. Almandoz 1930, 1. “Juan de Sagues” esaten zaio, ez “*Pedro* Juan de Sagues”.
1802an hilik dago “*Pedro* Juan de Sagues”, Olloko benefizioa hutsik dagoela horregatik. Hau da Iberok testamentu betetzaile ordeko izendatu zuena. Ik. Navarro 2657, 1.

7. IBEROK DARABILTZAN LIBURUAK

Biblia eta Aita Sanduez landara, orrialde bazterretan eta prediku bukaerari maiz aipatzen ditu erabili dituen liburuak eta etsenplu iturri gerta daitezkeenak: Andrade, Barcia, Calatayud, Carabantes -aipatuena eta kaputxinoa-, Chía, Echeverz -bigarren aipatuena-, Garcés, Lyra, Manni, Martínez de la Parra -hirugarren aipatuena- eta Nieremberg. Horien guztien zerrenda ematen dugu hemen, berorien xehetasunak guk ikusi ditugun aleetatik hartzen ditugula. Kaputxinoen Iruñeko komentu zaharreko biblioteca eta artxi-boan aurkitzen dira gorderik denak, Manni-rena izan ezik -baina honen beste libururik badago-. Ezin dugu esan guk azaltzen dugun edizioa berak erabili zuena denik, zenbait aldiz ezin dela izan, bere predikua moldatua edo bera hilik baitzegoen data horiek baino lehenago.

ANDRADE, ALONSO DE. *Itinerario Historial que deve guardar el hombre para caminar al cielo*. Madrid 1670. Jesuita (1590-1672).

BARZIA Y ZAMBRANA, JOSEPH DE. *Quaresma de Sermones Doctrinales*. Barcelona 1687. Kalonje eta apezpikua (fine XVII-c.1695).

CALATAYUD, PEDRO DE. *Misiones y Sermones*. Madrid 1797. Jesuita nafarra (1698-1773).

CARABANTES, JOSE DE. *Platicas Dominicales, y lecciones doctrinales*. Madrid. 1686-1687. Kaputxinoa (1628-1694).

-. *Practica de Misiones, remedio de pecadores*. León 1674.

CHIA, MANUEL. *El Credo explicado, y predicado*. Zaragoza 1729. Beneditarra (XVII mendeko bigarren erdi aldekoa).

- ECHEVERZ, FRANCISCO MIGUEL DE. *(Ave Maria) Platicas Doctrinales*. Zaragoza 1717 eta Iruñea 1769. Mertzedariora (1672-1745).
- *Platicas Dominicales*. Madrid 1735 eta Iruñea 1769.
- GARCÉS Y MAESTRE, ANTONIO. *Cartas de favor, en nombre de Maria Santissima a sus devotos en milagros del rosario*. Iruñea/Pamplona 1755. Dominogotarra (1701-1773).
- LYRA, NICOLAUS DE. *Librum differentiarum Novi et Veteris Testamenti cum explicatione nominum hebraeorum*. [Parrhisiis 1520]. Frantziskotarra (XIII-c. 1349).
- MANNI, JUAN BAUTISTA. *Quatro Maximas de Christiano philosophico*. Roma 1671. Jesuita italiarra (1606-1682). Oharra: Hau ez dugu ikusi.
- MARTINEZ DE LA PARRA, JUAN. *Luz de verdades catolicas y explicacion de la Doctrina Christiana*. Barcelona 1705. Jesuita (1655-1701).
- NIEREMBERG, JUAN EUSEBIO. *De la diferencia entre lo temporal, y eterno*. Iruñea/Pamplona 1755. Jesuita (1595-1658).

LABURPENA

Lan honetan Juan Martín de Ibero (Munarritz 1729-Izu 1783) euskal idazlearen bizitzaren berri ematen da, bere testuak beste aldizkari batean agertzeko eskuraturik daudelarik. Goñerrin dagoen Munarritzen jaio eta Oltza zendeako Izu herriko parroku izan zenez (1754-1783), leku horietako zenbait argibide ere ageri dira. Testuak bilduma zabalago baten zatia baitira, saiatzeko gara bilduma horren gorabeherak argitzen, horretarako inguruko herrietako parrokuak zerrenda aurkezten dugula.

RESUMEN

Se da noticia de la vida del escritor en vascuence Juan Martín de Ibero (Munarritz 1729-Izu 1783), mientras que sus textos aparecerán en otra publicación. Como nació en Munarritz y fue párroco de Izu (1754-1783), se ofrecen algunas explicaciones histórico-lingüísticas sobre esos lugares. Los textos forman parte de una colección más amplia, por eso procuramos proyectar alguna luz sobre ella, dando a conocer una serie de párrocos de los pueblos cercanos.

RÉSUMÉ

On informe de la vie de l'écrivain en langue basque Juan Martín de Ibero (Munarritz 1729- Izu 1783), alors que ses textes apparaissent dans une autre publication. Comme il naquit à Munarritz et fut curé d'Izu (1754-1783), sont offertes quelques explications historico-linguistiques de ces sites. Les textes font partie d'une plus ample collection, c'est pourquoi nous essayons de la faire connaître en présentant une série de curés des villages alentour.

SUMMARY

An account of the news referring to the basque writer Juan Martín de Ibero (1729-1783) is given in this work, while his texts will appear in

another periodical publication. Besides, a historical and linguistic background of the place he was born at and of the village parish priest of which he was, Munarritz and Izu respectively, is offered. The texts he wrote belonging to a wider collection, we try to find out its origin and make known for that purpose a number of priests who served at the surrounding villages.

38

Sepúlco y el Abas vna carta de la I.aa. al Lugar de Iru,
 y como tal Patrono del Monte de pascas de cincuenta Robos de
 trigo fundado en el dho. Lugar por el Señor D. Diego de Echaz-
 zar, que todos los Señores a este Lugar quidau a dha. fundación, co-
 mo son Miguel Thomas de Goni, que debia catorce Rs. y diez al-
 mudos, Matias Antonio de Zubizarri por haver comprado la casa
 de Miguel de Moya ya difunto, que debia ocho Rs. y Juan Antonio
 de Padua, que debia seis Rs. han pagado un ochabo por cada robo
 de trigo, que respectivamente debian a la referida fundación, en cum-
 plimiento del auto de pascas dado en la Villa de Monreal, por el
 Señor L.º. Lope de Sotomayor general, la fecha treinta e de septiembre del
 año de mil setecientos setenta y dos: y para que conste para los efectos, q
 convenga doy la presente certificación firmada de mi mano. En el Lu-
 gar de Iru a diez y seis de Mayo del año de mil setecientos setenta
 y quatro. D. Juan Matias de Moya.
 Abas de Iru.

1. 1764 urteko agiri eta errubrika.
 Ik. IEA, Ollo 1693, 2. znb., 38. or.

becatulae, et vicinior atxabagae, quibuscum videri, Jui-
cisco epunean anteciozequi, penatufallos.

Expos. Chia Credo explicato. fol. 264 (año del 168)

C. 2. tom. 2. Uti. 173. 11 212. 11 135. 11 455. 11

Exhibio. Diferencia. 129.

Omnia sub coactione sancti Romani Ecclesiae

Hasta la misma Madre de Dios se mor.

traza armada, y engada con los pecadores. Carabantes. tom. 2. Domi-
nicol. fol. 556. 11 Exemplos del asunto carabantes Dom. 2. 166. 67 y 6

2. 7. testuko azken orrialdea, 1768koa.